



[PARTAIDETZA ETA GOBERNANTZA TOKI-
ERAKUNDEETAN. MATERIAL LAGUNGARRIA]

[4]

ESKU-HARTZE KOMUNITARIOAN PARTE
HARTZEARI BURUZKO GIDALIBURUA

[PARTAIDETZA ETA GOBERNANTZA TOKI-
ERAKUNDEETAN. MATERIAL LAGUNGARRIA]

[4]

ESKU-HARTZE KOMUNITARIOAN PARTE
HARTZEARI BURUZKO GIDALIBURUA



Dokumentu hau Nafarroako Gobernuko Herritarren Partaidetzarako Atalak (Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua) eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren lankidetzarekin, argitaratzen duen koaderno-sail batekoa da. Sail horren bidez, partaidetza hobetzen eta zabaltzen lagundu nahi da, plangintza eta kudeaketa tresna izan dadin Nafarroako toki erakundeetan.

Editorea: Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua.
Nafarroako Gobernua

Laguntzailea: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF)

Edukiak: Tamara Marín Alquézar, Mari Carmen Martínez Molina (La Bezindalla S. Coop.)

Lantaldea:

- ⇒ Hezkuntza Departamentua – Antolamenduaren, Orientazioaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua
- ⇒ Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala
- ⇒ Pauma SL – Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzua
- ⇒ Nafarroako Urritu Fisikoen IBILI Elkarte
- ⇒ Iruñeko Udala – Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorra / Haurtzarora eta Familia Programa
- ⇒ Osasun Departamentua – NOPLOI – Gizarte Osasuna Sustatzeko Zerbitzua
- ⇒ Espainiako Gurutze Gorria - Nafarroa
- ⇒ Osasun Departamentua - Sarrigurengo Osasun Etxea
- ⇒ Hezitzaile Eskola IB

Irudiak: Javier García, La Bezindalla S. Coop.

Diseinua eta maketazioa: Javier García [todocambia.com]

Inprimatzea: Gráficas Arga

Legezko gordailua: LG NA 53-2020

1I AURKEZPENA	5
2I ERREFERENTZIA ESPARRUA	6
2.1. KOMUNITATEAREN DEFINIZIOA, ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA ETA PARTAIDETZA	6
2.2. PROZESUAREN ERAGILE PROTAGONISTAK	11
2.3. ZER EREMU EDO ARLORI ERAGITEN DIE ESKU-HARTZE KOMUNITARIOAK?.....	12
2.4. TIPOLOGÍA DE LA INTERVENCIÓN COMUNITARIA.....	13
2.5. PARTE-HARTZE MAILAK: PARTE-HARTZEAREN ESKAILERA.....	14
3I ESKU-HARTZE KOMUNITARIOKO PROZESUETAN	
 PARTE HARTZEKO GAKOAK	16
0. FASEA. EKIMENAREN JATORRIA	17
1. FASEA. KOMUNITATEA EZAGUTZEA	18
2. FASEA. KOMUNITATEA ANTOLATZEA	21
3. FASEA. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	24
4. FASEA. PLANGINTZA.....	27
5. FASEA. EXEKUZIOA.....	30
6. ETENGABEKO EBALUAZIOA ETA BIRDEFINIZIOA.....	33
7. EXEKUZIOA, EGOKITUTA	35
8. AZKEN EBALUAZIOA.....	36
ZEHARKAKO GAKOAK	37
4I ESPERIENTZIA INTERESGARRIAK.....	39
4.1. NAFARROAKO ESPERIENTZIAK.....	40
OSASUNA ETA BIZI ESTILO OSASUNGARRIAK SUSTATZEKO PROIEKTU KOMUNITARIOA (BERRIOZAR)	40
EL DÍA DEL BARRIO LOURDES (TUDELA).....	41
HAURREK ETA GAZTEEK PARTE HARTZEKO PROZESUAK (ZIZUR NAGUSIA).....	43
MESKITAREN ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK (MARTZILLA).....	44
ETXABEAK (ZIZUR NAGUSIA)	45
BERTAN: ZAHARTZE AKTIBORAKO ESTRATEGIA (SAKANA).....	47

SANDUZELAI AUZOKO (IRUÑA) OHITURA OSASUNGARRIEN PROIEKTU SOZIOSANITARIOA	48
IKASKUNTZA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA (NAFARROA)	50
IKAS KOMUNITATEAK (NAFARROA)	51
HAUR ETA GAZTEENDAKO PROGRAMA (ZIZUR NAGUSIA)	52
PASARELAK: GAZTEEN AKTIBAZIOA ETA EMANTZIPAZIOA (NAFARROA)	54
ADINEKOEN ALDEKO ITUNA, DONIBANE AUZO (IRUÑA).....	55
HAURRENDAKO I. UDAL PLANAREN PARTE HARTZEKO DIAGNOSTIKOA (IRUÑA)	57
SARETU SANDUZELAIN (IRUÑA)	59
ESKOLABIDEAK (IRUÑA).....	60
PLANGILEAK (IRUÑA).....	61
MENDILLORRIKO AINTZIRAKO ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA (IRUÑA).....	63
IRUÑEKO UDALAREN PREBENTZIO EKINTZA KOMUNITARIOA (PEKZ).....	64
4.2. BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN ESPERIENTZIAK	66
OLIVER AUZOKO PROZESU KOMUNITARIOA (ZARAGOZA).....	66
LA CALZADA AUZOKO PROZESU KOMUNITARIOA - MAR DE NIEBLA (GIJÓN)	68
PREBENTZIO KOMUNITARIOA - HONDARRIBIA (GIPUZKOA)	69
KEK PROIEKTUAK: KULTURARTEKO ESKU HARTZE KOMUNITARIOA (ESPAINIA).....	70
EL COLLETERO - NALDAKO PROZESU KOMUNITARIOA (ERRIOXA)	72

5 | BIBLIOGRAFÍA

74

AURKEZPENA

1

Esku-hartze Komunitarioan Parte Hartzeari buruzko gidaliburu honek erantzun nahi dio Herritarren Partaidetzarako Atalak (Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua) partaidetza hobetu eta zabaltzen laguntzeko duen interesari, arretagunea, oraingo honetan, komunitateekiko lanaren esparruan garatutako prozesuetan paratuta.

Esku-hartze Komunitarioan partaidetza antolatu eta bultzatzeko gakoak eta lagungarriak ematea du helburutzat, honako hauei, hain zuzen ere: bakoitza bere ardura politikotik abiatuta, tokiko komunitateak eraldatu eta hobetzeko prozesuak bultzatu asmo dituzten arduradun politikoei; horrelako prozesuak, bakoitza bere ardura profesionaletik, lagundu eta errazten dituzten teknikariei (administrazio publiko zein erakunde sozialetakoak); herritar gisa duten arduratik abiatuta, Administrazioari horrelako prozesuak eskatzen dizkioten eta/edo horietan parte hartzen duten herritarrei.

Gidaliburuak komunitatearen dimentsioa osatzen duten begirada eta ikuspegi ezberdinei erantzun nahian, eta edukiak osatzeko, haien gaineko gogoeta eta eztabaidari eman zaizkio osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen hainbat profesional, Nafarroako Gobernutik, Iruñeko Udaletik zein beste erakunde sozial eta elkarte batzuetatik etorrita. Batera lan egin dute zenbait bileratan, parte hartzeko metodologiari jarraikiz, eta ideiak partekatu, gogoetatu eta eztabaidatu dituzte, profesional eta esparru bakoitzaren ikuspegi teoriko eta esperientzietatik abiatuta. Nolanahi ere, idazle taldekoak dira edukien egile eta arduradun, Nafarroako Gobernuko Herritarren Partaidetzarako Atalak (Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua) gainbegiratu eta oniritzia emanda.

Gidaliburuak hiru atal nagusi ditu. Lehenengoak kontzeptu nagusien definizioaren inguruko erreferentzia esparru teorikoa ezartzen du. Bigarrenak esku-hartzeko prozesuaren fase bakoitzean partaidetza laguntzen duten gakoak berri ematen du. Hirugarrenak tipologia ezberdinetako esku-hartze komunitarioko zenbait esperientzia azaltzen ditu, Nafarroakoak zein beste lurralde batzuetakoak.



2 ERREFERENTZIA ESPARRUA

Esku-hartze komunitarioan partaidetza antolatzeko gako nagusiei heldu aurretik, beharrezkoa da, gure iritziz, gako horiek oinarrituko ditugun erreferentzia esparrua ezartzea.

2.1. KOMUNITATEAREN DEFINIZIOA, ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA ETA PARTAIDETZA

Komunitatea definitzea erronka bat da beti, termino horren konplexutasuna eta orain arteko literaturan eman zaizkion askotariko adierak direla eta. Hori horrela, nahiz eta termino hori ikuspegi eta diziplina ezberdinetatik aztertu duten, ez da haren definizio adosturik lortu, eta, anitzetan, adiera osagarriak eta, zenbaitetan, kontraesanezkoak baino ez dira erdietsi. Batzuetan, terminoa modu nabarmenean saihesten dutela ikusten dugu, eta horren ordez kolektiboa erabiltzen dute, gizabanako edo batasunaren ideari kontrajarrita (De Robertis, C. eta Pascal H., 1994, 13. or.).

Gidaliburu honetan zenbait autorengan oinarrituko gara, Komunitatearen kontzeptura hura osatzen duten elementu ezberdinen bitartez hurbiltzeko.

Tradizioz, Komunitatearen ideia definitzeko orduan, bi elementu hartu dira erreferentziatzat, tokiko komunitateak eta erlazio komunitateak berezita (Maya Jariego, I., Holgado D., Ramos I. eta Santolaya F.J., 2013). Tokiko komunitateak mugaketa geografikoan oinarritzen dira, bai eta mugaketa horrek pertsonen arteko harremanetan duen eraginean, eta erlazio komunitateak, berriz, beren kideen partaide izatearen zentzuagatik definitzen dira, geografikoki mugatuta egon gabe (adibidez, komunitate birtualak edo interes bera duten pertsonen taldeak).



Miguel del Fresno eta Sagrario Segadok (2012), dagoen literatura aztertuta, gutxieneko adostasun batera iristeko ahalegina egiten dute, eta hiru elementu hauetan oinarriturik definitzen dute:

- a) Gizabanakoen arteko elkarreragin soziala egotea.
- b) Gizabanakoek gutxienez batasuneko zein kide edo partaide izateko lotura bat partekatzea, nolabaiteko premiaren bati erantzutera bideratua.
- c) Partekatzen duten testuinguru esparru bat egotea.

Marco Marchionik (2004), are gehiago zehaztuta, lau elementu eta haien etengabeko elkarreraginak finkatzen ditu, eta horietan oinarritzen du esku-hartze komunitariorako bere proposamen metodologikoa; ohartarazpen hau ere egiten du: “(esku hartzeko) prozesua faktoreetako bakar batera mugatzeak porrotera darama”. Honako hauek dira:

- a) Lurraldea (eremu fisiko mugatua).
- b) Populazioa eta haren arteko elkarreraginak (pertsonek, erakundeak, buruak...).
- c) Baliabideak (publikoak, pribatu ez espekulatiboak eta borondatezkoak): hezkuntza, osasun, lan eta enplegua, kultura, kirola, aisia eta aisialdia, gizarte arlokoak...
- d) Eskariak (komunitatearen beharrak, nahiak, arazoak, intereseko gaiak...).

Definizio horrek biltzen du adostasun handien komunitatearekin lan egiten duten askotariko arloen artean. Esate baterako, osasun komunitarioaren arloan, eta Osasun Komunitarioaren Aliantzaren arabera, hitzez hitz hartzen da Marchionik ematen duen komunitatearen definizio hori, “Participación Comunitaria: Mejorando la salud y el bienestar y reduciendo desigualdades en salud” izeneko eskuliburuan (2018) adierazi bezala.

Enrique Pastorrek (2015, 37. or.) beste elementu bat gehitzen die Marchionik ezarritakoei:

- e) Partaidetza (komunitate jakin batean herritarrek parte hartzeko dauden tresnak, organoak eta prozesuak).

Marchionik partaidetza komunitatean esku hartzeko prozesu osoaren oinarritzko elementu bat dela esaten du, baina ez du jasotzen komunitatearen definizioaren barruan.

Ondorioztatzen dugu, bada, elementu horien guztien elkarreraginaren bidez, komunitatearen ezin konta ahala tipologia lortzen ditugula: handiak edo txikiak hedaduraz edo osatzen dituzten gizabanakoen kopuruaz; mugaketa geografiko zehatzarekin edo nortasun arloko interes, arazo edo elementu komunek definituta; pobrezia eta gizarte-bazterketa handiarekin edo erosahalmen maila handiarekin; bizikidetzaren dinamika egonkorrekin edo asalduzko elkarbizitza egoera eta gatazkekin; erresilientzia gaitasun handiarekin edo antolatze eta egoera zailei aurre egiteko eta botere publikoei ardurak eskatzeko eraginkortasunik gabe.

Definizioak aldatzen dira definizioa lantzen duenak, lortu nahi duen helburuaren arabera betiere, norantz lerratzen duen.

Horrenbestez, gidaliburu honi dagokionez, gure norabidea, hau da, komunitatea begiratzeko orduan, arretagunea non jartzen dugun, esku-hartze komunitarioa da, eta horrek esan nahi du terminoa operatibizatu behar dugula esku hartu ahal izateko. Horren arabera, edukiei

buruz hausnartu eta horiek egiaztatu dituen taldeak, komunitatea definitzeko orduan, honako elementu hauek sakondu eta/edo lehenetsi ditu:

- ▶ Mugaketa geografikoa (lurraldea) beharrezkoa da esku-hartze komunitariorako (hori bai, komunitate birtuala tresna bat, komunikazio kanal bat izan daiteke gure esku-hartzean). Nabarmentzen da administrazioek hiri bat banatzeko erabiltzen dituzten mugaketek zerbitzu publikoen erabilerari dagokionez zenbait egoera eragiten dituztela, eta egoera horiek eragin nabarmena dutela komunitatearen bizitzan, lurraldeari dagokionez ez baitatoz bat osasun sektoreak, hezkuntzakoak, administrazioak eta abarrak.
- ▶ Lurraldea gauzak egiten dituzten pertsonak partekatzen dute: bizi diren pertsonak, lan egiten duten pertsonak, inplikazio aktiboa duten pertsonak, zeregin komertziala duten pertsonak... Ideia horren arabera, gainera, pertsona bera komunitate bateko baino gehiagoko kide izan daiteke (bizi den komunitatekoa, lan egiten duen horretakoa, jarduera soziopolitikoa egiten duen komunitatekoa, etab.), eta komunitate horiekin identifikatzeko eta kide izateko sentimenduak izaten ditu neurri handiago edo txikiagoan.
- ▶ Bizia dagoen tokia da: komunitate guztietan pertsonen arteko elkarreragina dago, loturak daude, interesak, beharrak, eskariak..., eta horiek ez dira amankomunak ezinbestean, batzuetan elkarren aurkakoak ere badira, eta komunitate orotan dauden bizikidetzak eta/edo gatazkakortasun maila ezberdinak dakartza horrek.
- ▶ Ikuspegi sistemiko batetik, komunitate bat ez dago gainerakoetatik isolatuta, beste batzuekiko etengabeko elkarreraginean baizik, muga geografikoak dituenekin, baina ez horiekin bakarrik. Ikuspegi horrek berak gogoeta hau dakarkigu: komunitateak etengabeko eboluzioan daude, horrela ere badaudelako osatzen dituzten pertsonak, baita horien arteko elkarreragina ere (egiturazko faktoreez gain)..

Komunitatearen kontzeptuan sakonduta, aurrera eginen dugu, eta honela definituko dugu esku-hartze komunitarioa: komunitate baten egoera edo behar kolektiboak aurre egiteko garatutako prozesuak, zeinak kolektiboki bururatzen diren, lurraldeko eragile protagonisten



parte-hartze eta inplikazioaren bidez (maila politikoa, maila teknikoa eta herritarrak). Horrek esan nahi du hiru mailek esku hartu behar dutela (politikoa, teknikoa eta herritarrak), baina ez komunitateko baliabide guzti-guztiak egon behar direnik. Prozesu horiek, administrazio publikoaren edo herritarren ekimenez abiarazita ere, biek ala biek elkarlanean bultzatu eta garatzen dituzte, norik bere eginkizuna betez, dagokion erantzukizunaren arabera.

Esku-hartze komunitarioaren definizioan are aurrerago joanda, prozesu horiek herritartasuna eraiki behar dute eta elkarri lotuta dauden hiru dimentsio gehitu eta/edo bermatu behar dituzte (Morales, E. eta Rebollo, O., 2014):

1. Komunitate osoa barnean hartzea, haren aniztasun osoa, alegia; inor ere ez uztea prozesu kolektiboetatik kanpo, talde ahulenak bereziki.
2. Biztanleak ahalduntzea (gizabanakoak eta taldeak), erantzukizuna banaka eta taldeka hartzeko prozesuaren emaitza gisa.
3. Bizi baldintzak hobetzea; aukera berriak sortzea eta bizikidetzak esparruak eraikitzea, beharrei erantzuteko.

Eta hori guztia prozesu guztian eragin behar duten balioetan oinarriturik, bai maila metodologikoan bai aldatzeko helburuei zein lortu beharreko hobekuntzei dagokienez. Era horretan, Gomák (2018) esku-hartze komunitarioaren balioen artean “errespetu, konfiantza, elkarriketa, sormen edo ikaskuntzako erlazioak” eraikitzea ezartzen du, erlazio horiek, komunitate inklusiboagoak erdiesteko bidean, herritartasuna eraldatu eta eraiki ahal izan dezaten.

Nolanahi ere, eta erreferentziatzen hartzen dugun komunitatea edozein dela, prozesu osoan komunitatea hartu behar dugu esparrutzat (komunitate BATEAN lan egiten dugu), helburutzat (komunitate BATENDAKO lan egiten dugu) eta, batez ere, esku-hartzearen subjektutzat (komunitate BATEKIN lan egiten dugu), eta horretan pertsonak beren bizitzen eta bizitza kolektiboaren protagonismoa beren gain hartzen dute eta aukera dute inguratzen dituen errealitatea eraldatzeko.



Esku-hartzearen esperientzia batzuk daude komunitateAN eta komunitateARENDAKO egin-dako lanean oinarrituta, baina komunitateA BERA prozesu osoaren parte aktibo eta protagonista izan gabe. Horrelakoetan, ez genuke esku-hartze komunitarioaz hitz eginen, ikuspegi edo perspektiba komunitarioa duen lanaz baizik. Ohikoa da biez bereizi gabe solas egitea, baina ez dira gauza bera. Aldea komunitatearen partaidetzan datza.

Ideia horretan sakonduta, Gomák (2018) hau dio: “parte-hartzea helburuak lortzeko oinarritzko estrategia eta elementu metodologiko bilakatzen da”, eta, ildo beretik, Marchionik (2004, 21. or.) “parte-hartzea prozesuaren izarra” dela adierazten du, sakontze demokratikoko ariketa bat da, non komunitateak aldaketa sozialerako subjektu aktibo bihurtzen diren, botere publikoei erantzukizunak eskatuz ez ezik, baita publikoaren eta komunitarioaren arteko eremu komunitarioa gehituz ere, zeinetan esku hartzeko prozesuak erabakitzen, definitzen eta garatzen diren.

Hala ere, parte-hartzea ezin dugu bereizi gertatzen den testuingurutik, ezta lortu nahi duen “garapen sozial eta komunitariotik” ere (Equipo Andecha, 2016). Gaur egungo gizarteek garapen ekonomizista eta produktiboa dute ardatz, honako hauetan oinarrituta: indibidualismoa; ondasunak eta zerbitzuak lortzeko lehia; zainketa lanak gutxiestea eta ikusgaitz paratzea; kapitala metatzea; prekarizazioa, etab. Testuinguru horrek bazterketa eta gizartearen zatiketa dakartza, bai eta ezberdintasun handia ere behar pertsonal eta kolektiboekiko gogobetetasunei dagokienez. Hori horrela, dagoen partaidetza parte hartze distortsionatua da, eta desberdintasunak indartzen ditu. Partaidetza eraldatzailea gertatzen da prozesuen bidez lortu nahi den garapen edo aldaketa soziala pertsonak erdigunean jartzean badatza, hau da, aukera berdintasuna eta testuinguru inklusiboagoak sortzea, eta pertsonak beren komunitatea eta bizitza hobetzearen protagonista aktibo eta erantzule izatea.

Azaldutako horren guztiaren ondorio gisa, gidaliburu honetan partaidetza honela definitzen dugu: komunitate bateko eragileak harremanetan jartzen dituen prozesua, non, eragile horiek, dagokion informazioa jaso ondoren, gai edo egoera jakin batekin lotutako behar kolektiboak diagnostikatu eta identifikatzen dituzten, horiek hobetzeko proposamenak lantzen dituzten eta haien garapenean esku hartzeko aukera duten.



Eta prozesuez solas egiten dugu, esku-hartze horiek abiapuntua baitute, horren gainean, era kolektibo batez, lan egiteko eta, horrela, beste toki batera iristeko, biztanleen bizi baldintza hobeak erdiestea xede. Abiapuntu hori ez da ezinbestean pobrezia edo prekariedade maila handietan kokatu behar, baina helmugan ongizate kolektiboko maila handiagoak egon behar izanen dira, eta helburu amankomunak paratzen ahal izatea beharrezkoa da. Horregatik, prozesu guztiak elkarren ezberdinak dira, komunitate bakoitzak berezko egoera baitu, eta horretatik abiarazi beharra du, gerora nora iritsi nahi edo ahal duen definitzeko. Zentzu horretan, prozesua definitzen joaten da aurrera egin ahala, eta ikaskuntza handia dakar esku hartzen duten alderdi guztiendako. Hala bada, autore batzuen iritziz, emaitza baino, sortutako prozesua bera da garrantzitsuagoa.

2.2. PROZESUAREN ERAGILE PROTAGONISTAK

Esku-hartze komunitario orok Marco Marchionik ezartzen dituen hiru protagonisten (gidaliburu honetan eragile esaten diegu) parte-hartzea dakar (Marchioni M., Morin L.M., Álamo J., 2013):

1. Erakundeak eta administrazioak (maila politikoa)
2. Baliabide teknikoak (publikoak eta pribatuak edo hirugarren sektorea)
3. Herritarrek (antolatuta eta antolatu gabe)

Protagonistak izateak ez dakar ezinbestean guztiek eginkizun bera izatea, baina hirurak beharrezkoak dira.

Administrazioei gobernatzea eta politika publikoak garatzea dagokie, prozesuak ahalbidetzeko eta horien emaitza abian jar dadin bermatzeko.

Baliabide teknikoek gaitasun tekniko eta metodologikoa eman behar dute, lan kolektiborako zein errealitate bakoitzari egokitutako irtenbideak bilatzeko; lotura lanak ere eginen dituzte maiz maila politikoaren eta herritarren artean.

Herritarrek eraldatu beharreko egoeraren gaineko ezagutza eman behar dute (horren ahultasunak zein indarguneak), eta parte hartze aktiboa izatea ziurtatu behar dute.

Hori guztia, itxuraz, begien bistakoa bada ere, errealitateak erakusten digu beti ez dela erraza izaten horien guztien parte-hartzea eta inplikazioa, ezta horien artean banatzen duten edo beren gain hartzeko prest dauden paper edo eginkizuna ere. Prozesu orok parte hartzeko egiturak, organoak, eremuak... sortu behar ditu, hiru eragile protagonistek esparru horietan lana ahalik eta horizontaltasunik handienarekin parteka dezaten.

Halaber, gero eta ohikoa da agerian uztea sailkapen horrek ez dituela barne hartzen prozesu komunitarioetan beharrezko diren eragile guztiak, lurraldeko merkataritza eta enpresa sektorea barnean hartzen ez baitu. Sektore hori funtsezkoa da, gure ustez, eragin handia duelako, hala komunitate baten aberastasuna eta aukerak sortzeko egoeretan, nola prekariedade, langabezia eta bazterketako egoeretan. Horrenbestez, arlo komunitarioan proposatu eta landu beharreko erronkatzat jotzen dugu hori.

2.3. ZER EREMU EDO ARLORI ERAGITEN DIE ESKU-HARTZE KOMUNITARIOAK?

Esku-hartze komunitarioa ez da lanbide edo profesional zehatz batzuen berezko esku-hartze mota bat, ezta esku-hartzeko eremu jakin batekoa ere.

Oraingo testuinguru sozialaren konplexutasunetik abiatzen gara, non honako hauek guztiak elkartzen diren: aldaketa soziodemografikoekin lotutako egoerak (biztanleen zahartzea, migrazioak, familia era berriak...), lan merkatuaren malgutasun eta prekaritatea, kultura eta nortasun balioen aldaketak (generoa, etnia, kultura...), teknologia berriek enpleguan eta harreman sozialetan duten eragina, eremu publikoa taxutzeko eredu berriak, ingurumenaren narriadura eta abarrak.

Faktore eta prozesu horiek guztiek –nork bere jatorria du, halere, eta osoki eta maila estrukturallean aztertu behar dira– zuzeneko efektua eta eragina dute tokiko esparruan eta pertsonen eguneroko bizitzan, eta pobrezia eta bazterketara zuzenean daramaten desberdintasun egoerak sortzen dituzte.

Horregatik, toki mailako esku-hartze komunitarioak ez die egiturazko arazo globalei heltzen, baina bai baduela helburutzat ordezkotza kolektiboki aurkitzea arazo horiek eragiten dituzten tokiko egoerei aurre egiteko, komunitatearen beraren indargune eta gaitasunetan zein erantzunkidetasunean oinarrituta, bai eta administrazioko sektore guztien eta herritarren arteko adostasunak bilatzean ere.

Hortaz, esku-hartze komunitarioak politika publikoak garatzen dituzten eremu guztiei eragiten die; hau da, pertsonen, komunitateen eta lurraldeen bizitzaren gainean modu batera edo beste batera eragiten duten guztiei: Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Hezkuntza, Hirigintza, Etxebizitza, Enplegua, Ingurumena, Segurtasuna, etab.

Hori bai, batzuek edo besteek inplikazio aktiboa izatea esku hartzen duten faktoreen mende dago, eta komeni da horiei, ahal den neurrian, aurrea hartzea: bultzatzailearen lidergo gaitasuna, koordinazio eta sareko lanaren arloan aurretik izandako esperientzia arrakastatsuak edo porrotak, esku hartzen duten administrazioen arteko harremanak, herritarren arteko gatazkakortasun maila, gizartearen kohesioa, prozesuarekiko konfiantza, interes politikoak, etab.



2.4. TIPOLOGÍA DE LA INTERVENCIÓN COMUNITARIA

Dauden esku-hartze mota ezberdinak ezartzeko orduan, Ricard Gomák (2017) hiru irizpide-
ren arabera (guk lau bereizi ditugu) egiten duen sailkapenean oinarritu gara, zeinak elkarre-
kin konbina daitezkeen hainbat tipologia ematen dituen:

- ▶ **EKIMENAREN JATORRIAREN ARABERA (ESKARIA), NONDIK ABIATZEN DEN:**
 - ↳ Elkarteen edo herritarren ehunak bultzatutako esku-hartzea
 - ↳ Erakunde mailan bultzatutako esku-hartzea; bi azpimota bereizten dira:
 - Maila politikoan bultzatutako esku-hartzea
 - Maila teknikoan bultzatutako esku-hartzea
- ▶ **PROZESUAREN LIDERGOAREN ARABERA (HAU DA, NORK ABALATZEN, BULTZATZEN, BERMATZEN DUEN, ETAB. ETA HORI EZ DA ZERTAN IZAN EKIMENA HARTU DUENA):**
 - ↳ Elkarteen edo herritarren ehunak zuzendutako esku-hartzea.
 - ↳ Erakunde mailan, maila politikoa eta teknikoa elkarrekin, nork bere eginkizuna duela, zuzendutako esku-hartzea (elkarren beharra dute zuzendu ahal izateko; maila politi-koak maila teknikoaren alde exekutatzailea behar du, eta bigarrenak bestearen ones-pena).
 - ↳ Era misto batez zuzendutako esku-hartzea, hau da, modu horizontal batez administra-zioaren eta elkarteen ehunaren artean.
- ▶ **ERAGILEEN KOPURUAREN ETA INPLIKAZIO MAILAREN ARABERA:**
 - ↳ Inplikazio maila handia duten eragileen sare zabal batek garatutako esku-hartzea (adibidez, gertutasuneko zerbitzu publikoek, herritarrek, elkarrekin, eragile ekonomiko eta komertzialek parte hartzen dute, besteak beste).
 - ↳ Inplikazio maila ezberdina duten eragileen sare ez oso zabala duen esku-hartzea (adibi-dez, lurraldeko zerbitzu jakin batek garatzen du ekintza, eta herritarrek unean-unean laguntzen dute).



► PROPOSATUTAKO ERALDAKETEN IRISMENAREN ARABERA:

- ↘ Osotasunari heltzen dion esku-hartzea: lurraldearen azterketa eta ikuspegi osoa hartzen da kontuan, askotariko alderdiak eta gaiak barnean hartuta (adibidez, Komunitatea Garatzeko Planak).
- ↘ Ardatz zehatz bati heltzen dion esku-hartzea: herritarren edo erakundeen ekimena ardatz baten bidez egituratzen da, eta ekintza komunitarioa eratzeko ildoan izanen da ardatz hori. Ardatz hori baliteke gai bat edo biztanle talde bat izatea. Gazteen Adikzioak Prebenitzeko Plan Komunitario bat, adibidez.


2.5. PARTE-HARTZE MAILAK: PARTE-HARTZEAREN ESKAILERA

Parte-hartzeak, definitu dugun modura, herritarren egiazko boterea dakar, prozesu baten definizioan, inplementazioan eta ebaluazioan eragin dezaten, bai eta, ondorioz, inguruneari eta eragiten dion guztiaren gaineko erabakietan ere.

Hala eta guztiz ere, prozesu guztietan ez da errealia “botere” hori; prozesu hori bultzatzen eta zuzentzen duenaren borondate politikoaren mende egonen da, zenbateko boterea ematen zaion, alegia.

Parte hartzearen eskaileraz baliatuko gara parte-hartze maila ezberdinak daudela ezartzeko, eta nabarmentzeko, batzuetan, parte-hartzeaz mintzatzen dela egiaz hala ez den arren. Tresna hori 1969an proposatu zuen Sherry Arnsteinek, eta gerora, Roger Hartek egokitu zuen haurren parte-hartzean erabiltzeko.

Arnsteinek 8 kategoria proposatu zituen. Gidaliburu honetan gure Parte-hartzearen eskailera landu dugu, eta mailak berriz formulatu eta izendatu ditugu (6 proposatzen ditugu), eskailearren zenbait egokitzapenetan oinarriturik.



1. **Desinformazioa:** herritarrei prozesu baten hasiera edo proposamena ez jakinaraztea, edo parte hartzea nahi dugun kolektiboek bakarrik jakinaraztea. Maila hori ez da ageri azterketa honetan erreferentziatzat hartu ditugun eskaileretan, baina hori aipatzea oso garrantzitsua dela uste dugu, batez ere prozesua bultzatzen eta antolatzen duenak modu kontziente batez egiten duenean. Ez da igo beharreko maila bat, saihestu beharreko maila bat baizik.
2. **Informazioa:** komunitateari prozesuaren berri ematea, motibatuzko eta bertan esku har dezan ahalbidetzeko. Informazioa noranzko bakarrekoa da, botere publikoetatik herritarrengana, ez da joan-etorrikoa; alegia, ez da komunikazioa, baina lehen pausoa da. Parte-hartzea egon ahal izateko oinarritzko baldintza da, baina ez da parte-hartzea oraindik.
3. **Kontsulta:** herritarrei gai zehatz batzuei buruzko iritzia eskatzea galdeketen, elkarriketen, auzoan egindako bileren eta abarren bitartez. Ahotsa ematea da, baina ez da loteslea. Lehen parte hartze maila da, baina hemen gelditzen bada kalitate apaleko parte-hartzea izanen da (gidaliburu honetan bildu dugun zentzuan), herritarrek eragin txikia dutelako azken emaitzan.
4. **Koerabakia:** pauso bat gehiago ematea da. Herritarrei galdetzeaz gain, eztabaidatzeko prozesu bat ere behar da (gogoeta eta azterketa), adostasunak eta desadostasunak biltzeko eta, hortik abiatuta, erabakiak batera hartzeko. Erakundeak hartutako erabakiak abian jartzeaz arduratzen dira. Erantzunkidetasun maila bat dago jada.
5. **Kogestioa:** eztabaidan eta erabakiak hartzen parte hartzeaz gain, herritarrek erantzukizun partekatua ere badute Administrazioarekin batera erabaki den horren kudeaketan.
6. **Autogestioa:** herritarrek autonomiaz kudeatzen dituzte elkarrekin hartutako erabakiak.



3

ESKU-HARTZE KOMUNITARIOKO PROZESUETAN PARTE HARTZEKO GAKOAK

Parte-hartzearen gakoez hitz egiten dugunean, maila metodologikoan kontuan izan beharreko kontu batzuez ari gara, zeinek laguntzen baitute eragile protagonista guztiek esku-hartze komunitarioan parte har dezaten antolatzen, prozesuak aurrera egin ahala haren beharretara egokituta.

Horrenbestez, sakontze metodologiko bat denez, esku-hartze komunitarioko prozesuaren faseetan oinarrituko gara, hori lagungarria delako ordena eta logika bat ezar dezagun.

Ez dira fase itxiak, hau da, ez dituzte pauso edo une zehatzek bereizten, fase bat itxi eta beste bati ekiteko. Faseak denboran gainjar daitezke, edo baliteke baten eta beste baten arteko trantsizio uneak egotea, zeinetan fase ezberdinetako ekintzak egiten baitira; hala ere, baliagarri zaizkigu prozesu horren garapena hasieratik amaierara arte ezartzeko. Ez ditugu jorratuko hemen fase bakoitzean erabil daitezkeen tresna edo teknika zehatzak. Eskuliburu anitz daude kontsultatzeko eta, zehazki, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak horri buruzko argitalpen espezifikoak dituzte; gidaliburu honen testuinguruaren arabera tresna egokiak atera daitezke horietatik, beraz¹.

Esku-hartze komunitarioko prozesuetan, honako fase hauek hartzen ditugu erreferentziatzat:

0. Ekimenaren jatorria
1. Komunitatea ezagutzea
2. Komunitatea antolatzea
3. Egoeraren diagnostikoa
4. Plangintza: prozesuaren definizioa
5. Exekuzioa
6. Etengabeko ebaluazioa eta birdefinizioa
7. Exekuzioa, egokituta
8. Azken ebaluazioa

¹ Dokumentu hauetaz ari gara: Bustos, R.; García, J. eta Chueca, D. (2018). "Herritarren partaidetza errazteko gida praktikoa. Lan kolektiborako aurrez aurreko tresna eta baliabide digital hautatuak". Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua. Nafarroako Gobernuak. Aguado, D.; Martínez, P. (Aradia Cooperativa) (2018). "Ebaluazio-gida. Iruñeko Udalaren partaidetza politikak ebaluatzeko tresna praktikoa".



0. FASEA. EKIMENAREN JATORRIA

Fase zero honetan komunitatearen zati bat mobilizatzen da kolektiboki esku hartzeko beharra edo aukera eskatzeko, betiere komunitate horren are ongizate kolektibo handiagoa lortzeko. Lehen negoziazioak eta erabaki hartzeak izaten dira, eta esku-hartze komunitarioko prozesuaren definizioa eta garapena ekarriko dituzte horiek; era honetako erabakiak, adibidez: jarraitu beharreko prozesuaren hasierako diseinua, haren antolaketa eta kudeaketa eta, jakina, finantzaketa (nork ordaintzen duen, bestelako iturriak bilatzeko aukera, epeak, etab.). Une horretan eratzen da erabakiak hartzen dituen organoa (edo organoak).

Hori bai, administrazioaren, baliabide teknikoaren eta herritarren artean negoziazioak eta baterako lana ezarri arren, ekimena hartu duenak zuzenean eraginen du prozesuari buruzko erabakiak hartzeko orduan bakoitzak zer garrantzi izanen duen. Horretan ondoren sakonduko dugu.

0 FASEAREN GAKOAK (HALERE, KASU HONETAN, GAKOAZ BAINO GEHIAGO, ESKU-HARTZEA GERTATU AHAL IZATEKO BALDINTZAZ HITZ EGINEN GENUKE)

△ KOMUNITATEKO HIRU ERAGILE PROTAGONISTETAKO BATEK, GUTXIENEZ, PARTE HARTZEKO SENTSIBILITATE ETA INTERESA

Argudiatu dugu jada esku-hartze komunitarioko prozesuetan botere publikoak, baliabide teknikoak eta herritarrak (antolatuta eta antolatu gabe) egon behar direla. Dena den, hiru horietako batek bere komunitatean aurrerapenak lortzeko duen interesa dago prozesu komunitario guztien sorburuan, eta beste biek bat egin behar dute ezinbestean. Horietako edozeinek proposa dezake ekimena, baina garrantzitsuena da guztiek bat egitea eta elkar ulertzea, prozesuari ekiten ahal izan dakion.

Hori horrela, ekimena batak edo beste batek izateak ez du axola, itxuraz; izan ere, jada esan dugun bezala, bizi kalitatea hobetzeko prozesuak dira. Nolanahi ere, ekimenaren jatorriak erabakiko ditu, neurri handi batean, sortuko diren prozesuen garapena, horien lidergoa eta, aniztetasunak eta bideratu beharreko baliabideak.



Herritarrek baliteke gaitasun handiagoa izatea mobilizazio eta presio sozialerako, eta informazio iturri ere badira; baliabide teknikoek informazio eta metodologia dituzte, bai eta harremana ere herritarrekin zein botere publikoekin, eta, azken horiek ahalmena dute baliabideen destinoa zein agenda politikoaren lehentasunak erabakitzeko. Agerikoa denez, indar erlazio ezberdin horrek prozesu ezberdinak sortzen ditu.

Eta, jakina, hiruetako edozeinek ekimena hartzen ahal badu, berdin ere badu blokeatzeko ahalmena. Horregatik, esku-hartzearekiko sentsibilitate eta interes hori zenbat eta partekatuagoa izan, orduan eta handiagoak ere izanen dira haien inplikazio eta konpromisoa.

1. FASEA. KOMUNITATEA EZAGUTZEA

Fase honek hasiera ematen dio prozesuari; hala bada, laguntza eta babesa emanen dion lantalde profesional komunitarioa eratuz emanen zaio hasiera.

Komunitatea ezagutzea honako hau da: haren historian sakontzea, nori osatzen duen, zer talde dauden, haien harremanak, zer baliabide dituen, arrakasta handiagoz edo txikiagoz aurretik bururatutako proiektuak... Hori guztia ezagutzeko, beharrezko da dauden talde eta buruekin (formalak eta informalak), erreferenteekin... harremanetan jartzea, kanpoan inor ere ez uztea eta haien interesarekin konektatzea, bai eta batera lan egiteko zer prestasun duten jakitea ere. Horri esker, aukera izanen dugu, aurrerago, zehazteko komunitate hori zeinez osatua den eta iritsi behar garen eragileak zein diren (kanpoan inor ez uzteko helburuarekin).

Fase horretan, lantalde profesionalarendako oinarritzko bi printzipio ezar daitezke: komunitatea irakatsi eginen digun irakasletzat hartzea, eta horretarako jarrera irekia eduki beharra dago; eta gogoan izatea komunitatearen bizitzan ez dagoela kausa-efektuko logikarik elkarreagin sozialak azaltzeko, testuinguru historiko, sozial eta kulturalak baino ezin digu lagundu horiek ulertzen (Komunitatearen Osasun eta Garapenerako Zentroa, 2014).

Momentu horretan hasiko da komunitatea lantalde teknikoa ezagutzen, eta aurrera egiteko behar diren konfiantza eta neutraltasun harremanak ezartzen hasiko dira. Hori galduz gero, lantaldeak aurrera egiteko duen zilegitasuna ere galduko da.



1. FASEAREN GAKOAK:

△ LANTALDE TEKNIKOA ADITUA IZAN BEHAR DA LAN KOMUNITARIOAN ETA PARTE HARTZEKO METODOLOGIETAN.

Prozesu komunitarioak, garatu eta jasagarriak izaten ahal daitezten, ezin dira boluntarioaren mende egon, ezta komunitatea osatzen duten pertsonen prestasun onaren mende edo prozesuaren aurretik komunitatean jada zeuden baliabide teknikoaren gehiegizko dedikazioaren mende ere.

Lantalde komunitarioak ezagutzak ez ezik, trebetasun eta jarrera jakin batzuk ere eduki behar ditu, parte hartzeko metodologia garatzeko gaitasuna izateko; eragile protagonista guztiek bat egiten dutela ziurtatu behar dute, halaber, eta horien arteko harremanak lagundu behar dituzte.

Lantaldeak, batez ere, honako rol hauek betetzen ditu prozesu komunitarioan (Marchioni, M., Morin L.M., Álamo J., 2013): bideratzailea, dinamizatzailea, informatzailea, komunikatzailea, ikertzailea, trebatzailea, bitartekaria, kosortzailea.

△ KOMUNITATEAREN MUGAK ERABAKITZEA ETA EZARTZEA

Komunitatea ezagutzeko, haren eremu soziala mugatu behar da; hau da, biztanleek hauteman eta bizi duten komunitatea zein den, lurralde muga administratiboak direnak direla, eta esku hartzeko lurraldea zein izan den erabakitzea. Hiriek barrutien arabera antolaketa administratiboa izaten ohi dute, eta barruti horiek auzotan bereizten dira, orobat; azken eremu horiekin identifikatzen dira biztanleak, eta horien kide izateko sentimendua izaten dute.

Muga horiek kontuan hartuta ezartzen dugu zein den komunitatearen kide eta, ondorioz, prozesura nor batu behar dugun.

Hori horrela, garrantzitsua da ezagutzea komunitatearen barruan zer harreman dauden, baita komunitatearen eta ingurune hurbilaren artean ere.

Horri lotuta, komunitatearen neurriak eragin egingen du ezarritako prozesuan. Esate baterako, zenbat eta handiagoa izan komunitate bat, orduan eta zailagoa da hura ezagutzea, eta konplexuagoak izaten dira komunitatea osatzen duten taldeen arteko harremanak. Maila politikoan interes handiagoa sor dezake, ordea, esku-hartzearen eraginagatik. Komunitate txikiei dagokienez, kontrol soziala kontuan hartu beharreko faktore bat da, prozesuari onura nahiz kalte ekar diezaiokete eta.

△ KOMUNITATE BAKOITZAREN INGURUABAR ZEHATZAK EZAGUTZEA

Inguruabar zehatzak esatean, komunitatearen alderdi soziokulturalez, historiaz, politikaz eta komunitatea definitzen eta bakar eta gainerako guztietatik ezberdin egiten duen guztiaz ari gara; horrek, ondorioz, prozesu bakar eta ezberdina sortzea eraginen du.

Ezin dugu pentsatu komunitate batean momentu jakin batean emaitza ona izan duen prozesu batek emaitza bera izan duela beste edozein komunitatetan. Inguruabar berezi horiek esku-hartzearen arrakasta edo porroterako ezkutuko arrazoi izan daitezke. Ko-

munitatearen berezitasunak ezagutuz gero, besteak beste, metodologia, hezkuntza, mekanismoak eta komunikazio kanalak egokitzen ahalko ditugu, eta era horretan, egiazko muga bihur litezkeen egoerei aurrea hartzen ahalko diegu, bestela ezinezkoa izanen zena.

Lan egin behar dugun komunitatearen mugak zehaztuta, ezaugarri edo inguruabar horiek aurkitu eta ezagutu behar ditugu; biztanleen nortasuneko eta kide izateko sentimenduei hertsiki lotuta daude horiek eta, ekuazio beraren barruan, gizarte kohesio mailari eta biztanleen arteko gatazkakortasun mailari.

△ HARREMANAK EZARTZEA INOR KANPOAN UTZI GABE

Lantalde profesionala komunitateko pertsonekin paratu behar da harremanetan, are hobeki ezagutzeko aukera ematen dion informazioa lortzeko ez ezik, bai eta prozesuan kontuan hartu beharreko funtsezko pertsona batzuen agenda sortzeko ere. Eta ezagutzeko eta harremanak egiteko zeregin horretan, kontuz ibili behar da inor kanpoan gelditu ez dadin. Batez ere, baloratu eta egiaztatu behar da, modu kontziente batez, inor ez dela prozesutik kanpo gelditzen ari haren nortasun ardatzekin zerikusia duten kontuengatik (generoa, adina, jatorria, arraza, klasea, sinesmenak...). Lehenik eta behin, justizia sozialaren eta eskubideen arloko arrazoiengatik eta, bigarrenik, norbaitek sentitzen badu baztertuta da-goela, balitekeelako horrek gerora nekez desagertuko diren erresuminak sortzea.

△ KOMUNITATEKO ERAGILE PROTAGONISTA EZBERDINEN ARTEKO ALDEAK EZAGUTZEA

Prozesuaren hasieran gaude oraindik, eta garrantzitsua da kontuan edukitzea balitekeela esku hartzen duten eragile guztiek egoerari buruz eginiko analisiak ezberdinak izatea edo guztiz bat ez etortzea. Bakoitzak egoeraz egiten duen irakurketa eta prozesuan paratuta dituen interesak eta itxaropenak ez dira zertan gainerakoek dituzten berak izan.

Baliteke herritarrek komunitateko bizitzaren kontu zehatzekin lotutako interesa izatea. Biztanleen taldeek ere izan ditzakete interes ezberdinak. Administrazioak, berriz, baliteke bestelako interesik ere izatea, hiriaren egoera orokorreari lotuta, baita interes politikoei lotuta ere. Teknikariek, administrazio publikoetakoak edo lurraldeko erakundeetakoak diren, baliteke interes ezberdinak ere izatea, eta pertsonalak eta erakundearekin berarekin par-



tekatu gabekoak izan daitezke interes horiek. Egoera horrek, konplexua ematen duenak eta egiaz hala denak, ez du zertan eragin negatiboa izan prozesuan (aurrerago ikusiko dugu), baina funtsezkoa da lantaldeak jarrera ezberdin horiek ezagutzea eta horien artean kokatzeko eta moldatzeko trebetasunak edukitzea.

2. FASEA. KOMUNITATEA ANTOLATZEA

Fase honen helburua da egiturak sortzea protagonistek parte hartzeko aukera izan dezaten esku hartzeko prozesu osoan, diagnostikotik ebaluaziora arte, eta aldi berean, prozesuaren plangintza eta jarraipena laguntzeko, esku-hartzearen irismena eta esku hartzen duten eragileen sarea direnak direla.

Komunitatearen neurriak eta prozesuaren helburuak zein diren, egitura soilak (talde eragile bat, adibidez) edo konplexutasun maila ezberdinak aurkituko dituzte; azken horiek ordezkari eta erantzukizun maila ezberdinez daude osatuta (talde koordinatzailea, talde eragilea, eremukako mahai teknikoak, gai zehatzen araberako lan batzordeak...).

Nolanahi ere, sortzen den antolaketa egitura prozesuaren zerbitzura egon behar da, eta hori bururaten ahal izatea erraztu behar du. Ez luke inoiz balio behar izanen administrazioaren egitura arras bertikal horiek errepikatzeko, pertsonen plano horizontaletan parte hartzea zailtzen baitute. Esku hartzen duten pertsonen gehiegizko lan karga paratzeko ere ez luke balio behar izanen, ez dira zertan egon lanaldi osoa parte-hartzeari emanik; izan ere, horrek, epe labur eta ertainera, akidura, erresumina eta abandonua dakartza. Eta ez luke balio behar izanen, jakina, parte-hartzearen simulakro bat egiteko, erabakiak, berriz, beste toki batean hartuta. Hau da, sorturiko antolaketa egitura prozesuaren zerbitzura paratu behar da, inoiz ez interes partikularren zerbitzura.

Komunitatearen antolaketak zenbait abantaila ditu: (Castellón Benavidez, E., 2008):

- ▶ Taldeari ahalegina eta baliabide kolektiboak (giza baliabideak zein baliabide material eta ekonomikoak) hobeki erabiltzeko aukera ematen dio, proposatutako helburuak lortzeko.
- ▶ Aukera handiagoa ematen du ezagutzeko zein gobernuekin eta beste talde edo erakunde batzuekin negoziatzeko, eskatzeko eta kudeatzeko, proposatutako helburuak lortzearen.
- ▶ Jardueretan emaitza hobekia lortzen laguntzen du, baliabideak hobeki erabili eta banatzen baitira.
- ▶ Buruak sor daitezkeen ahalbidetzen du, gizabanakoen gaitasuna eta erabaki hartzea trebatzen baititu. Esparrua ematen du, beste pertsona batzuekin aritzeko, eta ikuspegi ezberdinak eztabaidatu eta errespetatzeko.

Aurretik ere adierazi dugunez, ezartzen den erakunde komunitarioak talde eta kolektibo guztien inklusioa lagundu behar du, eta bereziki ahulenen inklusioa (gutxiengoak, haurrak, emakumeak...), zuzenean eragiten dieten alderdi guztiei buruz hitz egiteko parada izan dezaten, beste pertsona batzuek haien izenean mintzatu ordez. Gainera, komunitatearen errealitateari buruzko jarrera ezberdinak badaude, horiek guztiak ere egon behar izanen lirateke ordezkatuta.

Inklusioa laguntzeko alderdi horri dagokionez, parte-hartzearen erronka nagusietako bat biztanle ez antolatua gehi daitezen da, bai horiengana iristea zaila delako, bai horiek ordezkatzeari oso zaila delako. Hau da, elkarteetan, kolektiboetan eta abarretan antolatuta dauden biztanleengana horien egitura formalen bitartez iritsi gaitezke eta ordezkagarritasuna adostu daiteke (erakunde bakoitzeko ordezkari kopuru bat ezarriz, adibidez).

Antolatuta ez dauden biztanleengana iristea, ordea, anitzez zailagoa da, formalak ez diren egituren bitartez egin behar baita, eta anitzez zailagoa ere bada haien ordezkagarritasuna ezartzea. Dagokionean, zenbat pertsona sar daitezke partikular gisa parte hartzeko prozesu batean? Gehienez parte hartzen ahal duten banakoen kopururik jarri behar da bilera batean? Ordezkatzeko aldituzue horiek komunitateko gainerako pertsona ez antolatua? Orientagarri modura, galdera horien guztien erantzuna komunitatean bertan dagoela baino ezin dugu esan, dauden taldeetan eta horien arteko harremanetan, gizarte kohesio mailan, sortutako antolaketa egituren eta alde zehatzetan aipatu ditugun inguruabar zehatz eta berezietan. Horik abiatuta baino ezin izanen da akordiorik lortu komunitate jakin baterako parte hartze esparru egokiena ezartzeko.

Hori guztia kontuan harturik, ondorioztatu behar dugu baldintza horiek betetzen dituen antolaketa komunitario eraginkorra bakarrik lortuko dela, baldin eta aurreko fasea, komunitatea ezagutzeko, modu eraginkorrez ere gauzatu bada soilik; bestela, ezinezkoa da.

2. FASEAREN GAKOAK:

△ PERTSONA PARTIKULARREKIN GERTATZEN DIREN BANAKO HARREMANAK ZAINTEA ETA PROZESU KOLEKTIBOETARA NOLA GEHITU IKUSTEA

Antolatuta ez dauden pertsona partikularrak “limurtzeko” gakoetako bat komunitateko egitura ez formalen bidez harremanak egitea da; pertsona horiek elkartzen eta harremanetan paratzen diren esparruetan, alegia (parkea, kalea, merkatuak, tabernak..., elkarteko tokiak).

Hala ere, harreman horiek “zaindu” behar dira, balitekeelako talde horretako kide batekin izandako elkarrizketa bat izatea prozesuan parte hartzeko zein iritziak eta proposamenak helarazteko modua. Halaber, pertsona batzuek pentsa lezakete gaizki interpreta daitezkeen lotura edo harreman pertsonalak sortu nahi direla. Gertatzen den esparruan erabilitako egitura oso “informala” izanik ere, ezartzen den harremana beti profesionala eta formala izan behar izanen da, baina horrek ez du esan nahi konfiantza eta errespetuan oinarritua egon ez denik.

△ ERAGILEEN PARTE-HARTZEA ETA ORDEZKAGARRITASUNA ZAILTZEN DUTEN KONPLEXUTASUNAK SAIHESTEA

Antolaketa egitura pertsona inplikatu eta konprometitu guztien parte-hartzea laguntzeko behar bezain soila izan beharko da (pertsona horiei koordinazio eta jarraipeneko lan handiegia paratu gabe), eta aldi berean, pertsona guztiak prozesuaren fase guztietan ordezkaturik daudela –bai eta zeregin eta ardura guztiak beren gain hartzen dituztela ere– bermatzeko bezain konplexua.

△ HASIERATIK BERTATIK, ERABAKIAK ZER ALDERDIRI BURUZ HARTUKO DIREN ETA NOLA HARTUKO DIREN ERABAKITZEA

Parte hartze loteslea bermatzen ahal da? Erreferentziako esparru teorikoan adierazi dugunez, herritarrek ez badute aukerarik azken erabakietan eragiteko, hori ezin da parte hartzetzat hartu, baizik eta, gehienez ere, kontsulta bat dela.

Baina, bestetik, hartu behar al ditu komunitate osoak modu irekian erabaki guztiak?

Alderdi bakar bat engainatua senti dadin ekiditeko, eta gerora kudeatzen zailak diren itxaropen faltsuak sor ez daitezen, koherenteena da, prozesuaren hasieratik, parte-hartzearen mugak finkatzea, hau da, proposamenak zer gai edo alderdi zehatzen gainean eginen diren eta horien gaineko erabakiak nola hartuko diren. Hori lagungarria da esku hartzen duten protagonista guztien ardurak eta konpromisoak ezarri eta argitzeko, eta ezkutuko botere borrokak eragotzi egiten dira.

0 fasean (jatorria) adierazi dugu hiru protagonisten indar harremanak prozesu ezberdinak eragiten dituela. Bada, prozesua protagonista horietako zeinek hasi eta zuzendu duen, parte-hartzearen muga ezberdinak dituzten prozesuak sortuko dira eta, ondorioz, botere orekak ezberdinak ere egonen dira. Oso litekeena da elkarte ehunak zuzendutako prozesuetan parte hartzearen mugak txikiagoak izatea, eta erabakiak hartzeko orduan, beraz, herritarrei botere gehiago ematea, Administrazioak zuzendutakoetan baino.

△ KOMUNITATE ANTOLAKETAREN ETENGABEKO EBALUAZIOA EGITEA (PROZESUAREN FASE GUZTIAN BEZALA)

Parte hartzeko sortutako egitura bera prozesu osoan zehar zama eta prozesurako bererako arriskutsu bihur dadin eragozteko modurik onena etengabeko ebaluazioa egitea da. Esku hartzen duten alderdi guztiek parte hartu behar dute horretan, fase bakoitzaren beharrei eta prozesuaren helburuei nola erantzun jaso behar du, eta, horren emaitza gisa, bermatu behar da aldaketak edo egokitzapenak egiten direla, eraginkorragoa izan dadin.



3. FASEA. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Egoeraren diagnostikoa ez da egiten komunitatea ezagutzeko bakarrik, baizik eta, berez, lortu nahi den eraldaketa soziala erdiesteko tresna baliagarria izan behar dela. Horregatik, komunitatearen beharrak bildu behar ditu –Villasantek (1998) sintomak esaten zien (gizartean eztabaida sozial handia eragiten duten gai labainak)–, eta horien azpian dauden sakoneko gaiekin lotu behar ditu, egiturazko erronka handiekin, alegia; baina komunitatearen ahalmenak ere jaso behar ditu: indarguneak, alderdi positibo nabariak, zer eragile dauden eta horiek zer eginkizun betetzen duten aztertutako egoerei dagokienez.

Diagnostikoaren edukia prozesu komunitarioa eragin duen behar edo sintomaren mende egonen da. Hori bai, diagnostikoak eraldaketa sozialerako tresna gisa balio izatea nahi badugu, Martí, J.k (2011) proposatu bezala, ez litzateke autokonplazentziazkoa izan behar izanen, ezta suntsitzailea ere. Lehenengoak zer ongi bizi den, anitz aitzinatu dela edo hobeki egiterik ez zegoela baino ez zuen bilduko. Bigarrenak kritika besterik ez, horretatik abiatuta aitzinatu gabe. Jarrera kritikoaren eta eraikitzailearen arteko orekari esker, komunitatearen baliabideak, ahalmenak eta aukerak aztertzen ahalko dira, ondorengo fasean, sakoneko gaiei ere heltzen dieten praktika eraldatzaileak planifikatzeko.

Itxuraz begien bistakoa bada ere, komunitateak diagnostikoan parte hartu behar du. Horren agerikoa ez da agian, ordea, ez duela parte hartu behar ezagutu nahi diren alderdien informatzaile gisa soilik, errealitatearen definizioaren protagonista gisa ere baizik. Horrek esan nahi du begirada eta bizipen ezberdinak integratu behar direla, eta banako ikuspegitik taldekora igaro. Pixkanaka gertatuko da, eragileen arteko elkarreraginaren bitartez, eta lantalde profesionalak topaketa horiek antolatu behar izanen ditu, eta ez ondorioak atera eta proposamenak egin.

3. FASEAREN GAKOAK

△ ERAKUNDEEN, PROFESIOALEN ETA HERRITARREN DIAGNOSTIKOEN ARTEAN ALDERIK DAGOEN EZAGUTZEA, ETA DIAGNOSTIKO PARTEKATUA EGITEA

Gerta liteke adostasunik ez egotea eragile protagonistek egindako diagnostikoan, ez horrenbeste ez daudelako ados komunitatean zer gertatzen den zehazteko orduan, baizik eta bakoitzak gertatzen dena zergatik gertatzen den azaltzeko zergati ezberdinak zehazten dituelako. Baliteke ere prozesuaren ekimena zuzentzen duenak diagnostiko bat egin edukitzea aurrez. Diagnostiko hori egiaztatzeko unea da, ikuspegi komunak ikusteko, eta



komunitatearen gainerakoak osa dezan. Hori eginda, gogoeta kolektibo horretatik ahalik eta adostasun handiena atera behar da.

△ DIAGNOSTIKOA KOMUNITATEARI, HAREN ZATIRIK HANDIENARI ITZULTZEA; ITZULKETA

Diagnostikoa amaitutakoan, komunitateari helarazi behar zaio, baliozkotu dezan. Sormen handia behar da une horretan, diagnostikoak trinkoak eta sakonak izaten ohi baitira. Prozesuan itzulketa egiteko lehen unea da, baina ez da bakarra izan behar. Beste une bat egon behar da, adibidez, plangintza inplementatu ondoren (4. fasea).

Egokiena da itzulketa hori hiru eragile protagonistei batera egitea, eta lantalde teknikoak azaltzea diagnostikoa nola egin den, nork parte hartu duen eta emaitza zein den. Komunitateak momentu hori prestatzen parte hartzen badu eta, gainera, bertan eginkizun aktibo eta agerikoa badu, prozesu komunitarioan duen protagonismoa finkatuz joanen da.

Itzulketa egiteko formula hori ezinezkoa bada eta eragile batzuei eta besteei une ezberdinetan egin beharra badago, garrantzitsuena izanen da guztiei informazio bera helaraztea eta, gerora, guztiei ere jakinaraztea diagnostikoa baliozkotuta dagoela (baita eman diren azalpenak ere).

Aurretik azaldu dugun bezala, sormena behar da diagnostikoaren itzulketa egiteko, baina garrantzitsuena da edukia argi geldu dadin. Askotariko euskarriak erabiltzen ahalko ditugu hori egiteko. Kontuan izan behar dugu aurrean dugun taldea oso handia den, hala bada euskarri handiak behar izanen baititugu, eta testua handi agertzea, ongi ikusteko (bionboak, kartel handiak...) edo edukia proiektatu; taldea txikia bada, ordea, euskarri txikiagoak erabiltzen ahalko ditugu (agiri fotokopiatuak, kartelak, askotariko materialak...). Kontuan ere hartuko dugu itzulketa hori kalean eginen den (kasu horietan, neurri handiko euskarriak ez ezik –bionboak, kutxak, kartel handiak edo olanak–, baliteke bozgorailuak, agertoki bat... ere behar izatea) edo espazio itxi batean eginen den. Nolanahi ere, ongi hautatu behar izanen dugu une horretan zer informazio helarazi nahi dugun, itzulketa zehatza izan dadin, eta argi eduki behar dugu diagnostikoa hala nahi duen edonork ikus dezakeen dokumentua dela.

Egoera gatazkatsuen edo gai bati buruzko askotariko jarrerak eta ikuspegiak dauden egoeren gaineko diagnostikoari dagokionez, sormenezko itzulketak ere egiten ahalko ditugu, Red Cimas erakundeak proposatzen dituen tetralemak, adibidez (Hainbaten artean, Madril 2009), aukera ematen baitigute informazioa itzultzeko jendeari itzul diezaiozun, sormenezko erantzunak edo irtenbideak entzutea eta bilatzen ahal izatea erraztuta.



△ PARTE HARTZEKO OZTOPOAK ETA BIDERATZAILEAK ZEHAZTEA

Egoera orokorra da parte hartzeko kultura eskasa dagoela eta, ondorioz, ez dakigu oso ongi nola parte hartu. Hori da aurkitzen dugun oztopo nagusia. Horri indibidualismoa gehitu behar diogu, horren ondorioz oso zuzenean eragiten digun horretan baino ez gara inplikatzeko. Oro har, kultura politiko nagusiak herritarren jarrera pasiboa sustatzera jotzen du; ordezkarien esku uzten du erabakiak hartzeko lana, eta bozkatzeko eskubidea erabiltzera mugatzen ditu. Hala, herri jakituria gureganatuta, gogoratu behar dugu etxea ez dela teilatutik hasten, eta ez dugu begien bistatik galdu behar hasieratik ekin behar zaiola. Hau da, parte hartzen ikasi behar dugu.

Gainera, prozesu komunitarioak konplexuak dira; besteak beste, erritmo motela izaten dutelako (gizartean berehala izan beharra nagusitzen da, ordea), eta hiru eragile motek berdintasunez lan egiteko zailtasuna edo errezeloak daudelako. Oztopo horiei inkontzientek esaten diegu, pertsonak ez direlako horien kontziente izaten ohi, baina, lantalde tekniko gisa, horiek antzematen ahal ditugu, eta hala egin behar dugu.

Halaber, kontzienteak deitzen ditugun oztopoak ere badaude; hau da, komunitateko pertsonen edo kide batzuen ekimen kontzienteaz sortutakoak. Horrelakoak dira, esate baterako, zenbait pertsonak prozesu bati boikota egitea, horren aurkakoak direlako, edo eragile batzuek prozesu baten aurrean jarrera ez oso bideratzailea izatea, askotariko arrazoiak direla eta (ez dutelako ulertzen, beharrezko ez deritzotzelako, alderdietakoren bat baliokotzen ez dutelako...).

Komunitatean dauden eta parte-hartzea erraz dezaketen alderdiak antzematea ere izanen da baliagarria, hala nola taldeko eta/edo komunitateko prozesuen bidez erabakiak hartzeko aurretik izan diren esperientzia positiboak (txikiak eta oso zehatzak izan arren); komunitaterako motibazio diren lidergo positiboak egotea; teknikari hurbilak eta lurraldean inplikatuak egotea, eta horiek gaien gertuko jarraipena egiten ahal izatea, baita administrazioaren erritmoak bizkortzen ere; prozesu errazak, eragileei argi azalduak, egotea, pertsonak jakin dezaten zer eta nola egin nahi den eta zer eskatzen zaien eta/edo zer ekarpen egin dezaketen (nahiz eta, gero, prozesua definitzen eta berriz definitzen joan); prozesuan pixkanaka sartzeko eta egoerei beste modu batera heltzeko eta erabakiak hartzeko prest dauden pertsonak egotea.

△ DIAGNOSTIKOA BERRITZEKO BEHARRA

Aurretik adierazi dugunez, komunitatea etengabe eboluzionatzen ari den toki bizia da; horregatik, prozesu komunitarioa denboran luzatzen bada, beharrezko izanen da diagnostikoa eguneratzea. Era horretan, prozesua egokituz joanen da eta komunitatearen behar eguneratuei erantzunen die.

Hori noiz egin, komunitateak berak edo lantalde teknikoak erabakiko du. Adierazle batzuek diagnostikoa berriz egin behar dela ezagutzeko alarma gisa balio dute, hala nola: biztanleak anitz mugitzea eta, ondorioz, komunitatearen konfigurazio soziodemografikoaren aldaketa azkarrak egotea; komunitatean nabarmen eragin duen egoera zehatzen bat gertatzea (eragin negatiboa zein positiboa izan); esku hartzeko prozesuak berak edo egiturazko gai orokorragoek eragindako aldaketa adierazgarriak.

4. FASEA. PLANGINTZA

Erreferentziako esparru teorikoan adierazi bezala, esku-hartze komunitario orok prozesu bat marrazten du komunitate baten abiapuntu baten (A puntua) eta hasierako egoera hobetzea dakarren beste puntu baten (B puntua) artean. A puntua aurreko fasean eginiko diagnostiko komunitarioan definitzen da, eta komunitate jakin hori, une zehatz horretan, zer egoeratan dagoen erakusten du. Planifikatzeko fasean jarraitu beharreko bidea era kolektibo eta era adostu batez ezarriko da, B puntura iristeko, iritsi nahi den eta komunitate horretarako eraldaketa soziala dakarren puntu horretara, alegia. Harnecker, M. eta Bartolomé, J. autoreek (2015) parte hartzeko plangintza esaten diote fase horri, baina ezinbesteko baldintza da komunitateak parte hartze aktibo eta erabakigarria izatea ekintza plana lantzeko orduan.

Bide horrek (plangintza) honako hauek hartu behar ditu barnean: egin beharreko ekintza kolektiboak, lehentasunak (nondik hasi?), lortu beharreko helburuak, inplikatuaren ardurak eta zereginak, denborak...; eta jaso behar du, orobat, ebaluazioa nola egingen den, hala prozesuari nola emaitzari dagokienez (egindakoarena zein lortutakoarena).

Egin beharreko ekintza kolektiboez mintzatzen garenean, komunitateak berak adostutako ondasun komun hori erdiesteko batera lan eginez eskaintzen dituen erantzunez ari gara, nahiz eta abiapuntuko jarrerak eta bakoitzaren interesak ezberdinak izan.

Prozesu bakoitzean sortutako antolaketa egiturak ezarri behar du nork (edo zer organok) hartu behar dituen ekintza planari buruzko erabakiak. Esku-hartzearen neurria eta irismena zein diren, hori lantalde komunitarioaren beraren esku, talde eragilearen esku, erakunde kudeatzaile baten esku edo organo politiko baten esku egonen da; ezberdina izan daiteke kasu bakoitzean.

Sormenezko fasea da oso, eta garrantzitsua da soa etorkizunean paratzea, baina kolektiboki. Ez datza zatien baturan, zati horiek osotasuna osatzen baizik. Eta aurretik ere adierazi dugunez, hurrengo faseari ekin eta planifikatua gauzatzen hasi aurretik, beharrezkoa da komunitateari helaraztea (bertan parte hartu duten pertsonen itzultzea) zertan datzan (hori horrela, diagnostikoaren fasean itzulketari dagokionez planteatutakora igortzen dugu).



4. FASEAREN GAKOAK:

△ HELBURU PARTEKATUA, ARGIA ETA DIAGNOSTIKOAREKIN BAT DATORRENA EZARTZEA

Diagnostikoan esan dugun bezala, abiapuntuko jarrera ezberdinak egoteak ez du zertan eragin txarrik eduki prozesuan, betiere interes kolektibo gisa erdietsi beharreko helburu komuna adosten badugu. Helburu komun horrek aukera emanen digu bidea zehazteko, eta horri esker, diagnostikoan beren burua islatuta ikusten ez dutelako parte hartzeko zalantzak zituzten pertsonak baliteke prozesuarekin bat egitea, lortu nahi den horrekin identifikatzen direlako.

Horregatik, helburua argia izan behar da, eta zehatza, prozesua oztopatzen duten lausotasunak eta orokortasunak baztertuta. Hala izan ezean, baliteke bi gauza hauek gertatzea: helburu oso orokorra izatea, eta ondorioz (1) deus ere esan nahi ez izatea, edo (2) bakoitzak bere modura ulertzea, eta horrek itxaropen ezberdinak sortzea. Kuantifikagarria ere izan behar da, ebaluazioa errazteko, bai eta, ondorioz, komunitatearen egoeraren gainean zer eragin duen neurtzea.

Halaber, plangintza bat etorri behar da diagnostikoarekin; hots, errealitateari egokituia egon behar izanen da, bai komunitatearen beharrei eta ahultasunei dagokienez, bai haren ahalmen eta indarguneei dagokienez. Era horretan, helburua lortzeko lagungarri izateaz gain, prozesuari lotutako pertsonen itxaropenak kudeatzea errazten da, eta balioa ematen zaio komunitateak jada duen horri. Planifikatzea ez da ekintza berriak sortuz erantzunak bilatzea soilik, baizik eta jada dagoena eta funtzionatzen duena aitortzea ere badela, eta eragileak harremanetan paratzea eta lan egiteko eta sarea sortzeko dinamika berriak ezartzea.



△ PROZESU BAT ZENBAT ETA INTEGRAL, ZEHARKAKO ETA GLOBALAGOA DEN, ORDUAN ETA AUKERA GEHIAGO DITU ONDASUN KOMUNARI ERAGITEN DIOTEN EGOERAK ERALDATZEKO, ETA ONDORIOZ, ERAGIN HANDIAGOA IZANEN DU BIZTANLEEN PARTAIDETZAN

Komunitateak prozesu batean parte har dezan zuzenen eragiten duten faktoreetako bat prozesuaren izaera globala da. Ekarriko lukeen eraldaketa sozialak komunitatearen zati txiki bati eraginen badio, edo interpretatzen bada abiapuntuko egoeraren aldaketa txikia lortuko duela, bada, aurreikustekoa da parte-hartzea txikiagoa izanen dela, pertsona gutxiagoren interesa bereganatuko duelako, besterik gabe.

Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi oso egoera zehatzei heltzen dieten edo pertsona talde espezifikoek eragiten dieten prozesu komunitarioek zilegitasun txikiagoa dutenik. Komunitate orok ongizate kolektiboa bermatu behar du, kolektibitatea berariazko beharrak (eta indarguneak) dituzten berezitasun anitzez osatua dagoela ulertuta, zeinak, arruntak ez direnez, esku hartzeko prozesuetatik kanpo geldituko lirakeen.

Hori kontuan hartuta, garrantzitsua da lantalde teknikoak arreta paratzea jarduerak nori iristen ari zaizkion; biztanleei oro har edo jarduerak iristeko diseinatu ditugun taldeei iristen zaizkien, alegia. Eta batez ere, iritsi nahi genituen kolektiboetakoren bat ez bada parte hartzen ari.

△ BEHAR DEN DENBORA ESKAINTZEA FASE HONI

Oso litekeena da fase hau prozesuaren funtsa izatea; lehen esaten genuenez, adostu dugun eraldaketa soziala lortzeko komunitateak zer bideri jarraitu behar dion zehazten du, izan ere. Horregatik, ezin da presaka edo gogorik gabe egin, ezta saiakuntza erroreak ematen duen atzera itzultzeko ideiarekin ere.

Aski denbora eduki behar da sormen kolektiboa garatzeko eta behar adina akordio lortzeko, eta zehaztapen maila nahikoa izan behar da, aurretik adierazi dugun bezala. Egia da denborak ez direla beti fasearen beharraren arabera zehazten, finantzatzen duenaren irizpideen eta horrek ezarritako epeen arabera baizik. Hala ere, beharrezkoa bada, hobe da prozesuaren beste momentu batzuk laburtzea.

Eta denborei buruz ari garela, beharrezkoa ere bada planifikatu beharreko ekintzen denborez gogoeta egitea, eta epe labur-ertainera eragina izanen duten horiek lehenestea. Esku-hartze komunitarioak eta eraldaketa sozialak prozesu luzeak behar badituzte ere, partaidetza gutxituko da epe laburrerako emaitzak erdietsi ezean. Garrantzitsua da epe ezberdinak dituzten ekintzak uztartzea, emaitzak eta parte-hartzeari eustea orekatzearren.

Horregatik guztiagatik, lantaldeak komunitateari akonpainamendua egitea fase honetan biziki garrantzitsua da, anitz baitira kontuan hartu beharreko aldaerak: helburuak, ekintzak, protagonistak, baliabideak, egutegia, emaitzen aurreikuspena, etab.

Fase honetan onena da planifikatzea lantalde teknikoak protagonismoa galduko duela kontuan harturik; lantaldea egon gabe iraun dezaketen prozesuak planteatu behar dira, beraz.

5. FASEA. EXEKUZIOA

Fase honetan aurreko fasean komunitatearen ondasun komuna lortzeko adostutakoa gauzatzeko ordua da. Ziur aski, planteatutako gakoak kontuan hartuta planifikatu bada, ekintzen exekuzioa, argi eta garbi, anitzez errazagoa izanen da, guztia aldez aurretik zehaztuta egonen baita (ekintzak, arduradunak, denborak, baliabideak..., esan dugun bezala). Aurreko faseari hertsiki lotuta dago fase hau.

Hori bai, egia ere bada prozesu komunitarioak ezin iragarritzeko direla eta ez dago aurrez jakiterik zer gertatuko den, zerk funtzionatuko duen eta zerk ez, interesa zerk piztuko duen eta zerk ez, parte-hartzea zerk eraginen duen eta zerk ez. Nolanahi ere, abian paratutako ekintza orok gutxieneko emaitza bat dakar; irekitzen den ate bat da, eta beste anitzez gehiago irekitzea eraginen du.

Fase honetan aurreko fasean erabaki eta adostu den guzti-guztia errespetatu behar da. Lehenik eta behin, modu kolektibo eta adostuan egin delako eta, bigarrenik, jarraitu beharreko bidea zehazten duen norabidea ezartzen duelako. Berriz orientatzeko momentua egonen da aurrerago, beharrezko bada.

5. FASEAREN GAKOAK:

- △ JARDUERAK XEDE BAT LORTZEKO BITARTEKO GISA ULERTZEA: HARREMANETARAKO ESPAZIO POSITIBOAK SORTU BEHAR DIRA, ETA HORIEK, BATETIK, KOMUNITATEAREN INTERES ETA LEHENTASUNEI ERANTZUN BEHAR DIETE ETA, BESTETIK, AZPIAN DAUDEN BESTE HELBURU BATZUEI.

Jarduerek komunitateak plangintzan ezarritako helburuei erantzun behar diete, jakina, baina haren interesak eta lehentasunak kontuan harturik egin behar dute, are gehiago motibatuzko. Adibidez, bizikidetza hobetzeko prozesu batean edozein jarduera egin daiteke, interesatzen duena da pertsonen beren burua islatuta ikusten duten esparruak sortzea, non komunitate beraren parte gisa identifikatzen diren eta ezarritako oldarkortasun dinamikak aldatzen doazen harreman positiboak egiten diren. Hala ere, komunitate horren interesak kontuan hartu behar izanen ditugu, parte-hartzea sustatzeko, ez baita gauza bera kirol jarduerak egitea eta sukaldaritza, osasun, garapen pertsonal, kultura, sorkuntza kolektibo, sormen eta abarren arlokoak egitea.

Alde batetik, garrantzitsua da prozesu komunitarioak aise identifikatzeko modukoak izatea, ikusgaitasun handia dakarten eta eragin handia duten ekintzen bitartez, hala pertsonendako nola lurraldea hobetzeko dakartenagatik. Jarduera batek ekarritako onurak zenbat eta nabari eta hurbilagoak zein epe laburreragoak izan, orduan eta eragin handiagoa izanen du partaidetzan.

- △ LANTALDE KOMUNITARIOAK ASKOTARIKO METODOLOGIAK EZAGUTU BEHAR DITU, ETA TALDE ETA BEHAR EZBERDINEI EGOKITU BEHAR DITU

Aurreko faseetan jada ezartzen genuen bezala, lantaldeak tresnak eta metodologiak egokitu behar ditu, honako aldagai hauen arabera: zer fasetan gauden, taldearen ezauga-

rriak, helburuak, etab. Maila metodologikoa ezagutu eta horretan ongi moldatu ez ezik, honako hauei ere erreparatu behar die: harremanei, taldearen kohesioari, elkarreraginei, hartzaren diren rolei, taldeko dinamika laguntzen duten edo hura boikotatu nahi duten pertsonen eta abarrei.

Dituzten gaitasun profesionalei esker, hau da, beren ezagutza, trebetasun eta jarrerari esker, inprobisaziorako prest egonen dira, beharrezko izanez gero, eta metodologia egokitzen, birbideratzen... ahalko dute.

Esate baterako, prozesu komunitarioetan garrantzitsua da haurrak eta gazteak barnean sartzea, komunitatearen parte direlako, eta parte hartzen badute baino ezin izanen diote ekarpenik egin prozesuari, batetik, eta onurarik zuzenean jaso, bestetik. Hala ere, beti ez da erraza hori egitea. Zergatien azterketa zorrotza egin gabe, anitzetan helduen gaiekiko interesik ez dutelako izaten da edo beste adin talde batzuekin harremanetan egoteko motibaziorik ez dutelako. Baina egia ere bada beste anitzetan, besterik gabe, ez dela erabiltzen komunikazio kanal egokirik haiengana iristeko, edo metodologiak ez direla egokitzen haien motibazio eta inplikazioa lortzeko. Hori lortzen bada, edozein esku-hartze komunitarioen momentu atsegin emaille eta emankorrenak erdietsiko ditugu.

△ ESKU HARTZE LANTALDEA ETENGABE EGOTEA LURRALDEAN EDO ESPARRU FISIKOAN, HARREMANETAN PARATZEKO, KONFIANTZAZKO ERLAZIOAK IZATEKO, ETAB.

Lan komunitarioan, lantalde teknikoak esku hartzen duen agertoki nagusia kalea, lurraldea da. Logikoaenez, lantaldeak erreferentziako esparru fisiko bat eduki behar du, lan pertsonala egiteko eta aurkitzen ahal dezaten. Nolanahi ere, kalean egoten ohi izateak aukera ematen du beti errealitatearekin etengabeko harremanetan egoteko eta hori ezagutzeko, eta aldi berean, parada ematen du eragile protagonista guztiarekin egindako harremanetan sakontzeko.

Hala ere, anitzez zailagoa ere bada parte hartzeko segurtasun esparru bat ezartzea, inolako mugarik ez dagoelako, eta ondorioz, jarduera oro egiteak dakartzan arriskuak na-



hitaez aztertu behar ditugu. Kontuan hartu beharreko aldagaiak askotarikoak dira, hala nola eguraldia, lursailaren egitura, ikusleen aurreko esposizioa, baliabide material eta/edo teknikoak edukitzeko aukera, herritarren artean dagoen gatazkakortasuna, esku hartzeko prozesuarekiko onespena edo errefusa, etab.

△ PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEI ETA HAIEN LANARI IKUSGAITASUNA EMATEA, BEREN BURUAZ DUTEN IRUDIA ETA BESTEEK DUTENA HOBETZEKO

Ekintzak gauzatzeko momentu honek, aldi berean, eragin handia izan dezake partaidetzan, baldin eta, komunitatearen gainerakoaren aurrean, prozesuan inplikatu diren pertsonak zaintzen badira, haien lana eta ongizate kolektiboaren alde izandako prestasuna ikusaraziz. Hori egin daiteke prozesu osoan zehar abian jarri behar diren informazio kanalen bitartez (buletinak, irratsaioak, sare sozialak, askotariko argitalpenak, etab.).

△ TEKNOLOGIA BERRIEZ BALIATZEA KOMUNIKAZIOA HOBETZEKO

Gaur egun, teknologia berriak esku-hartze komunitarioan oso kontuan izan beharreko tresna bat dira, batez ere eragile protagonisten arteko informazioa eta komunikazioa izugarri laguntzen eta bizkortzen dutelako, eta kanal ezberdinak erabiltzeko aukera ematen dute iritsi beharreko publikoaren eta lortu beharreko helburuaren arabera. Hala ere, informazioa iristen dela ziurtatu beharra dago, IKTek oztopo eta hesi berriak ere ekarri dituzte berekin, eta horien ondorioz, mezuak ez dira ongi iristen edo gaizki interpretatzen dira.

Halaber, kontrolatzen edo saihesten oso zailak diren arriskuak ere ekar ditzakete. Horren adibide argi batzuk dira komunikazio talde paraleloak sortzea edo prozesua, edo pertsona eta talde jakin batzuk publikoki difamatzea, sare sozialetan dagoen anonimotasunaz baliatuta, edo IKTak erabili ezin dituzten kolektibo jakin batzuk kanpoan uztea.

Errealitatea da jada ezin dela prozesurik egin teknologia berriak bazter utzita. Horrenbestez, zentzuzkoa da horiek eranstea, haien alderdi positiboak baliatzea eta arriskuei aurrea hartzen eta, sortuz gero, horiek minimizatzen saiatzea.



6. ETENGABEKO EBALUAZIOA ETA BIRDEFINIZIOA

Prozesu komunitarioaren jarraipena errazteko, planteatzen da ebaluatzea (exekutaturakoa) eta berriz definitzea (planifikatua) berariazko eta exekuzioaren ondorengo fase modura, baina egia da berez exekuzioaren paraleloan doala. Hau da, garatutako ekintzak egin ahal ebaluatu behar ditugu. Berehalakotasun horri esker errazagoa izanen da esku-hartzea egokitzea (plana berriz orientatzea) zerbait ez bada ongi ibili edo aurreikusitakoa baino arrakastatsua izan bada.

Fase hau eta exekuzioarena elkarren paraleloak direla esaten dugunean, esan nahi dugu ekintzak edo jarduerak egiten ditugun neurrian ebaluatu behar ditugula, eta horiek gauzaten dituztenekin batera. Kontua ez da, une honetan, komunitatean zer eragin duten ebaluatzea, gauzak proposatu genituen bezala egiten ditugun jakiteko ebaluatzea baizik. Hau da, prozesuaren funtzionamendua plangintzari eta metodologiari dagokienez ebaluatzen dugu (Rebollo, O., Morales, A. eta González, S., 2016).

Beharrezkoa da etengabeko ebaluazio hori oso operatiboa izatea eta denboran gehiegi ez luzatzea, esku-hartzean erritmo onari eutsi ahal izateko. Hori eragozpen bat da parte hartzeko ebaluazio prozesuak egiteko orduan; izan ere, horrelakoek, denbora gehiagoz gain, metodologia konplexuagoak eta baliabide gehiago ere behar izaten dituzte. Horregatik, hain zuzen ere, orokorrean, tarteko ebaluazioa lantalde teknikoak diseinatzen eta egiten du, bi maila hauetan: barnekoa (taldearen autoebaluazioa) eta kanpokoa (hiru eragile taldeen parte hartzaileekin).

6. FASEAREN GAKOAK:

△ ARGI EDUKITZEA ZERTARAKO EBALUATZEN DUGUN ETA ZER EBALUATU BEHAR DUGUN

Horrek esan nahi du arrakastak eta porrotak izanen ditugula aurreikusi behar dugula, eta horiek ebaluatu behar ditugula, berriz definitzeko eta egiteko.

Ebaluazioaren xedea eta helburua argi edukitzea lagungarri izanen zaigu honelako kezka burutik kentzeko: ebaluazioak profesionala zalantzan jartzea dakar eta egiaz ez du deusetarako balio. Teknikariek eta horiek kide diren erakunde, enpresa edo administrazioak hori ulertu behar dute, prozesura egiaz batu daitezen eta ohikoaren lan gehigarritzat har ez dadin.

△ EZ PARTE HARTZEA / INPLIKATZEA AZTERTZEA

Diagnostikoaren fasean, parte hartzeko oztopoak eta bideratzaileak zehaztuko ditugu, besteak beste. Ebaluazioa egiteko orduan, aztertzeko funtsezko puntu bat izanen da hori, batez ere ez parte hartzea ardatz hartuta.

Hasteko, parte hartzerik eza, komunikaziorik eza bezalaxe, ezinezkoa da. Komunitateko eragileek prozesuan parte hartzen ez dutenean, askotariko arrazoiak egon daitezke, eta informazio bat ematen ari zaizkigu, zeina biltzen eta interpretatzen jakin behar baitugu. Gure buruari eta haiei galdetu behar diegu zein diren arrazoiak, eta prozesu komuni-

tarioan inplikatzera eramanen lituzketen proposamenak, aukerak, ideiak... dauzkaten. Ondoren, planteatu behar dugu arrazoi horietako zeinetan eragin dezakegun, zeinetan aldaketak egin ditzakegun, lantalde tekniko gisa, parte-hartzea laguntzeko. Arrazoi anitz egon litezke: informaziorik ez edukitzea, jardueraren ordutegi, kokapen, irisgarritasunarekin... lotutako kontuak, alderdien arteko gatazkak egotea, interes edo motibaziorik eza..., bai eta proiektua, lantalde profesionala edo beste eragile bat ez legitimatzea.

Parte hartzerik ezaren ñabardurak interpretatu behar ditugu. Zehazki, prozesua boikotatzeko nahia egon daiteke edo ez. Prozesuarendako hobe izanen da beti pertsona horiek parte-hartzea, prozesua aurrera ez ateratzeko nahia duten eta elkarketa uneak kudeatzea zaila izan arren. Beti izanen da positiboagoa egoera komunitatean jendaurrean lantzea eta ezkutatuturik geldi ez dadila, horrek aukera ematen baitu, zailtasunen aurrean, alternatibak guztion artean aurkitzeko.

△ TESTUINGURUAREN EGOERA BERRIEI KASU EGITEA ERAGILE BERRIAK BARNEAN HARTZEKO

Esan dugun bezala, ez da ebaluazioa bakarrik esku-hartzea berriz definitzeko orduan informazioa ematen diguna. Komunitateak etengabeko eboluzioan daude eta testuinguruan gertatzen diren aldaketak, esku hartzeko proiektutik kanpo gertatu arren, eragina izaten dute orokorrean. Besteak beste, hauen tankerako aldaketez ari gara: biztanleen aldaketak (kopuruari dagokionez adierazgarriak diren taldeak iristea edo joatea); elkarte edo talde antolatu berriak sortzea eta horiek aldarrikapen berriak egitea edo planteamendu berriak agertzea; erreferentziako zentro eta zerbitzuetan langileak aldatzea; lurraldearen egitura fisikoari eragiten dioten administrazioaren esku-hartzeak; azpiegitura edo zerbitzu berriak eraikitzea... Nolanahi ere, komunitatearen gainean dugun ezagutza eguneratuta edukitzeko ez ezik, aldaketa horiei adi egotea interesatzen zaigu lurraldera iristen diren eragile berriek bururatzen ari diren prozesu komunitarioa ezagut dezaten eta horrekin bat egin dezaten. Horrek eskatuko du, beharrezko den neurrian, prozesua informatzeko eta zabaltzeko zereginari eustea.

△ PROZESUAK AURRERA EGITEN DUEN NEURRIAN EMATEN DITUEN IRAKASPENAK ATERATZEA

Argi badugu zer eta zertarako ebaluatu behar dugun eta parte hartzerik eza aztertuz eta testuinguruaren egoera berriei erreparatuz egiten badugu, gogoeta sakonak eta funtsezko ondorioak lortuko ditugu prozesurako. Horietatik irakaspenak ateratzen baditugu, zentzu osoa emanen diogu ebaluazioari.

Irakaspentzat hartzen dugu edozein eragilek bere esperientziaren bidez ezagutza, trebetasun, errealitate... berrien kontzientzia harraraztera daraman hori, eta prozesu komunitarioa garatzeko eta komunitatea hobetzeko balio du.

Irakaspen horiek ikusaraztea eta prozesu komunitarioan parte hartzen duten eragileen artean eta beste komunitate batzuetako beste talde batzuekin (teknikariak, politikariak, herritarrak) partekatzea ezinbestekoa da etengabeko ebaluazioaren itxiera borobila lortzeko, komunitatearendako horren beharrezkoa den emaitzen itzulketa egitea baitakar. Horrez gain, beste komunitate batzuek horiek bere egitea ere ahalbidetzen du, eta beren prozesuetara gehitzea.

7. EXEKUZIOA, EGOKITUTA

Begien bistakoa iruditu arren, fase hau aurreko fasearen beste urrats bat gehiago da, eta, berez, zentzua ematearekin batera, haren mende ere badago gauzatu ahal izateko. Ebaluazioa egiteak ez luke zentzurik izanen deusetarako balio izanen ez balu; erdietsitako emaitzak prozesura nolabait gehitu ezean, alegia (Rebollo O., Morales E., González S., 2016).

Horrenbestez, fase hau etengabeko ebaluazioan erdietsitako plangintzaren egokitzapenak exekuziora gehitzean datza. Fase berri bat baino gehiago exekuzio fasearen jarraipena da, baina garrantzitsua da prozesuan aipatzea, egokitzeko berariazko lana dakar eta.

7. FASEAREN GAKOAK

△ MALGUTASUNA IZATEA

Etengabeko ebaluazioak dakartzan aldaketak ekintzan txertatu ahal izateko, beharrezkoa da lantalde komunitarioak zein inplikaturik dauden eragile protagonistek hori egiteko presuntasuna eta malgutasuna edukitzea.

Normalean gauzak egiten ditugu egiteko era onena hori dela iritzita, eta, batzuetan, ebaluazioak ezetz esan arren, tematu egiten gara era horietan, eta zenbait arrazoi ematen ditugu horretarako: inertzia, beti horrela egin dugulako, metodologia berriak ikasi behar izatea dakarrelako, kudeatzen zailak diren beldurrak eragiten dizkigulako, oker egin dugula onartu behar dugulako, autoestimu txikia dugulako, beste pertsona batzuk onartzen ez ditugulako, etab.

Erresistentzia horiek kudeatu eta gainditzea, banaka zein taldeka, prozesu komunitario orok esku hartzen duten alderdi guztiei ematen dien irakaspen ugarietako bat da. Gainera, adimenaren adierazgarri argia da lan prozesuetan ebaluazio ororen emaitzen erabilera estrategikoa egitea (Rebollo O., Morales E., González S., 2016).



8. AZKEN EBALUAZIOA

Garaia iritsita, azken ebaluazioa egin behar izanen dugu, eta exekuzioak iraun bitartean eginiko etengabeko ebaluazioak ez bezala, prozesuaren funtzionamenduari ez ezik, haren inpaktuari ere heldu behar izanen dio. Hau da, egindakoaren kontakizunetik eta ebaluazio kuantitatibotik harago joan behar gara (hori ere jasota egonen den arren), muinera iristeko: burututako prozesu komunitarioaren ondorioz komunitatean zer aldatu den (hobera eta/edo okerrera) galdetzea, eta gogoeta egitea zer gertatuko zatekeen esku-hartzea izan ez balitz.

Hori ez da erraza eta, metodologia eta teknika egokiak hartu arren, nolabaiteko zehaztuga-betasuna egonen da beti, aipatu bezala, komunitateak etengabeko eboluzioan daudelako eta pertsonak, ezinbestean, modu ezberdinean bizi dutelako prozesu oro.

Ziurtatzen ahalko dugu, ordea, prozesu komunitario ororen azken ebaluazioa parte-hartze-koa izatea. Ekintzak beraiek balioesteko gogoeta eta eztabaida prozesua eragiteko modua da hori. Ebaluatzea, hortaz, gizarte eta hezkuntza arloko prozesu bat da, non, era konplexu batez, ikaskuntza, hezkuntza eta ahalduntzea uztartzen diren (Úcar, X., Heras, P. eta Soler, P., 2014).

8. FASEAREN GAKOAK:

△ PROZESUAREN GARDENTASUNA ETA IKUSARAZTEA BERMATZEN DUTEN TRESNAK ETA AZKEN DOKUMENTUAK LANTZEA

6. fasean dagoeneko aipatu dugun bezala, ebaluatzea nahitaezkoa da, eta ez da prozesu komunitarioko zeregin erantsizat edo hortik kanpoko eskakizuntzat hartu behar. Ebaluazioa prozesuaren parte da, eta emaitzak biltzeaz gain, komunitateari argi berriak ere ematen dizkio. Baina ebaluazioa ezin da izan tiradera batean sartuta gelditzen den dokumentu idatzi bat. Maila teknikoan, alabaina, ebaluazioaren edukia biltzen duen dokumentu bat landu behar izanen dugu, baina ziur aski bestelako tresnak ere behar izanen ditugu egindakoa eta erdietsitako emaitzak ikusarazteko. Tresnak, exekuzioaren fasean aurretik esan dugun bezala, helaraziko dizkiegun taldeei egokitu behar izanen ditugu. Berriz ere sormena eta komunitatean erabiltzen diren komunikazio kanaletara egokitzea ezinbestekoa da: erakusketak zentro publikoetan, sare sozialetako argitalpenak, saltokietan kartelak banatzea, jardunaldiak edo topaketak, hedabideak...

△ ESKU-HARTZE KOMUNITARIO BAT AMAITZEA DISEINATU BEHARREKO BERARIAZKO PROZESU BAT DA

Etorkizun gutxi goiti-beheiti hurbilean, amaitu edo itxi egin behar izanen da hasitako prozesu komunitario osoa. Dela behin betiko, dela jarraipena emateko beste prozesu bati ekinen zaiolako, dela jarraitzea eragotziko duen egoera gatazkatsua aurreikusten delako, dela aurreikusitako helburuak erdietsi direlako, dela prozesuaren lidergoa aldatzen delako. Nolanahi ere, lantalde teknikoak esku-hartzearen itxiera aurreikusi behar du, eta proposamen metodologikoa egin behar dio komunitateari; azkenik, esku-hartze hori parte hartzearekin amaitzeko berariazko prozesua zehaztu beharra dago. Itxieraren plangintza zein itxiera bera denborarekin egin behar dira. Ezin gara presaka ibili ebaluazioan par-

te-hartzea egotea nahi badugu, eta prozesu komunitarioaren azken astean edo prozesua amaiturik eta lantalde teknikoak kontraturik gabe dagoenean ere ezin dugu egin. Prozesuan parte hartu duten pertsonak balantzea egin eta prozesua agurtu behar dute.

ZEHARKAKO GAKOAK

Garatutako gako ugariak beste fase batzuetan islatzen diren ideia-indarrei egiten diete erreferentzia. Hala ere, atal honetan prozesu osoan zehar kontuan hartu eta bermatu behar diren gakoak emanen ditugu:

△ HIZKUNTZAK BATERATZEA, NOLA ESATEN DIEGU GAUZEI ELKAR ULER DEZAGUN?

Prozesu osoan zehar, baita sortzen dituen dokumentuak idazteko orduan ere, beharrezkoa da gauzak komunitate osoak ulertuko dituen moduan deitzea. Gertatzen ohi da maila politikoak eta teknikoak berezko hizkuntza bat erabiltzen dutela eta, maiz, herritarrek ez dute hizkuntza hori ulertzen. Hizkuntza egokitzen badugu eta teknizismoak baztertzen badira, herritarrek eskertu egingen dute. Are gehiago, gainerako eragileen maila berean ari dela sentituko du eta, ondorioz, benetan dela prozesuaren parte. Egia da ezen, prozesu komunitarioek parte hartzaileei irakaspenak ematen dizkietenez, irakaspen bat izan daitekeela herritarrek termino, adierazpen, azalpen... jakin batzuk ikastea, baina lehenetsi behar da prozesu komunitarioan parte hartzen duenak une oro ulertzea zertaz hitz egiten den, zer aipatzen den.

Horrenbestez, ongi dago, ahal izanez gero, fase guztietan denbora eskaintzea fase bakoitzaren gutxienekoen esanahia bederen adosteko (zer esan nahi dugu esaten dugunarekin? pertsona guztiok gauza bera ulertzen ari al gara?)



△ PROZESU KOMUNITARIOA ZAINTEZA ALDAGAI EZBERDINAK KONTUAN HARTURIK

Aintzat hartu beharreko aldagaietako bat hiru eragile taldeen arteko aldeetan datza. Administrazioari, baliabide teknikoetako, talde eta erakundeetako pertsonak zein aurreko talde horietako kide ez direnek parte hartzen dute prozesuan. Une oro gogoan izan behar dugu erritmo eta konpromiso ezberdinak izanen dituztela. Pertsona batzuek beren interes politikoaren eta agendaren parte izanen dute, beste batzuek, berriz, lanaldiaren parte, eta horretan interes pertsonala izanen dute edo ez; beste zenbaitek, interes pertsonal handia izan arren, lanalditik kanpo baino ezin izanen dute parte hartu. Prozesuaren izaerak berak erraztuko du pertsona bakoitzak protagonismo ezberdinak izatea faseen arabera. Nolanahi ere, hasieratik bertatik, baldintzak bermatu behar dira ahal eta nahi duen pertsona ahal eta nahi duenean egon dadin.

Kontuan hartu beharreko beste aldagai batzuk, adibidez:

- ▶ Erabiliko diren tokiak (hurbilak, irisgarriak, atseginak...).
- ▶ Ordu-tegiak eta denborazkotasuna (askotarikoak, aukera ezberdinak eskainita, hasi eta akitzeko ordua ezarrita, etab.).
- ▶ Deialdiak (gai-zerrenda, denbora nahikoa, nori iristen zaion ziurtatuta...).
- ▶ Koherentzia mezuetan (informazioa ziurtatzea, nork ematen duen, zer esan nahi den, zer ulertzen ari diren, beti gauza bera izatea igorlea eta hartzailea dena dela...).



ESPERIENTZIA INTERESGARRIAK

4

NAFARROAKO ESPERIENTZIAK

- ▶ Osasuna eta Bizi Estilo Osasungarriak sustatzea (Berriozar)
- ▶ Lourdes auzoaren eguna (Tutera)
- ▶ Haurrek eta gazteek parte hartzeko prozesuak (Zizur Nagusia)
- ▶ Meskitaren ateak zabaltzeko eguna (Martzilla)
- ▶ Etxabeak (Zizur Nagusia)
- ▶ BERTAN: Zahartze aktiborako estrategia (Sakana)
- ▶ Proiektu soziosanitarioa. Ohitura osasungarriak, Sanduzelai auzoa (Iruña)
- ▶ Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa (Nafarroa)
- ▶ Ikas komunitateak (Nafarroa)
- ▶ Haur eta Gazteendako Programa (Zizur Nagusia)
- ▶ PASARELAK: Gazteen Aktibazioa eta Emantzipazioa (Nafarroa)
- ▶ Adinekoen aldeko ituna, Donibane auzoa (Iruña)
- ▶ Haurrendako I. Udal Planaren parte-hartzeko diagnostikoa (Iruña)
- ▶ SAREtu Sanduzelain (Iruña)
- ▶ Eskolabideak
- ▶ PLANGILEAK (Iruña)
- ▶ Mendillorriko aintziraren esku-hartze komunitarioa (Iruña)
- ▶ Iruñeko Udalaren Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuen (PEKZ) esku-hartzea

BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN ESPERIENTZIAK:

- ▶ Oliver auzoko prozesu komunitarioa (Zaragoza)
- ▶ La Calzada auzoko prozesu komunitarioa (Gijón)
- ▶ Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzua (Hondarribia, Gipuzkoa)
- ▶ KEK: Kulturarteko Esku Hartze Komunitarioa (Espainia)
- ▶ El Colletero - Naldako prozesu komunitarioa (Errioxa)

4.1. NAFARROAKO ESPERIENTZIAK

OSASUNA ETA BIZI ESTILO OSASUNGARRIAK SUSTATZEKO PROIEKTU KOMUNITARIOA (BERRIOZAR)

△ LURRALDE EREMUA:

Berriozar

△ NOIZ GARATU DEN:

2008tik gaur egun arte. (2008 eta 2013 arteko izena: Berriozarko Haurren eta Gazteen artean Osasuna eta Bizi Estilo Osasungarriak sustatzeko proiektu komunitarioa)

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Oinarri komunitarioko proiektu bat da, zer testuingurutan garatzen den kontuan hartzen duena. Hasieran haurren eta nerabeen artean osasuna eta bizi estilo osasungarriak sustatzean oinarritu zen, obesitatea eta bestelako eritasunak prebenitzeko, osasuna sortzeko eta haien garapen pertsonala eta soziala laguntzeko. 2013tik aurrera programa Berriozarko biztanle guztiei zabalduta zaie, baina helburuak aldatu gabe. Proiektuak gero eta ekintza gehiago ditu, eta gehiago ere badira parte hartzen duten erakundeak.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Eremuko osasun etxeak proposatuta hasi zen, eta hasieratik Udalarekin elkarlanean lan egin dute. Lidergo partekatua dute.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Udala eta gizarte ongizate, kirol, kultura, berdintasun, gazteriako udal alorrak eta Gazteguneko IKARI-ARIko hezkuntza taldea. Osasun etxea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua (OGZ), Txolin liburutegi ludoteka, Berriozarko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarre edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarre edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoa: elkarreak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea



eta haien gurasoen elkarteak, Bigarren Hezkuntzako Institutua eta haren gurasoen elkarteak, ostalaritza zerbitzuen Irigoyen enpresa, Berrikilan (kirola kudeatzeko enpresa publikoa), Natureskola, Elkarteak: Ijitoen Idazkaritza Fundazioa, La Majarí, Lantxotegi, Cordones invisibles, Berriozarko auzoa laguntzeko elkarteak, erretiratuen elkarteak.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Hiru antolaketa egitura daude. Talde kudeatzailea: Kirol, gizarte ongizate eta osasuneko udal teknikaria eta osasun etxeko gizarte langilea. Talde eragilea: talde kudeatzailea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako hezitzailea, Gurasoen Elkarteak, gazterriko teknikaria. Talde koordinatzailea: ordezkaritza bat parte hartzen duen erakunde edo elkarte bakoitzeko.

△ WEB ERREFERENTZIA:

Ez dago proiekturako berriazko webgunerik. Udal webgunean ematen da haren jardueraren askoren berri <http://www.berriozar.es/>

EL DÍA DEL BARRIO LOURDES (TUDELA)

△ LURRALDE EREMUA:

Tuterako Lourdes auzoa

△ NOIZ GARATU DEN:

2019ko urtarrila - otsaila

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Lourdes auzoko talde eragileak eragile eta elkarte inplikatu guztiei dei egiten die auzoaren eguna antolatzeko.

Bi lan mahai eratu berri dira ikusgaitasuna galtzen ari ziren herriko

zenbait eremutan bizitza soziala eta jarduerak sustatzeko. Helburua bizikidetzaren sustatzea da, kulturarteko izaera nabarmena duten aldeak direlako, eta ekintza komunitarioak egin daitezkeen bultzatzea. Udalak sustatutako ekimena da, eta Sustatzaile Komunitarioak zuzentzen du (Tuterako Udalaren Gizarte Ongizatearen mende).

Gurutze Gorriaren Kulturarteko Bitartekaritza Zerbitzuak (hemendik aurrera, SMEICI) kulturarteko bitartekaritza komunitarioa egiten du. Hala bada, harremanetan dago bi elkarte magrebtarrekin, jardunaldi horretan garatu beharreko jarduerak proposatu eta eztabaidatzeko bileretan haien parte-hartzea errazte aldera. Bilerak egin dira Gurutze Gorrian, Tuterako udaletxean eta meskitan, eta horietan laguntza eman diegu magrebtarren elkartei eta meskitari berari beren proposamenak gara ditzaten.

Tuterako Udala arduratu da antolatu, prestatu eta koordinatzeaz, sustatzaile komunitarioaren bitartez. Bitartekaritza Zerbitzuak laguntza eman du eta beste kultura batzuetako

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoak: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input type="checkbox"/> Sare zabala <input checked="" type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

pertonekin harremanetan para daitezen lagundu du, jardunaldiak aberasteko, bai eta normalean gutxi parte hartzen duten eta era horretako ekintzetan inplikaturik sentitzen ez diren taldeen parte-hartzea sustatzeko ere.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Lourdes auzoko talde eragilea. Auzoan egindako bizikidetzaren gaineko diagnostikoaren ondorioz sortuta (ConviLourdes), jarduerak eta proposamenak egiten jarraitu du auzoko bizikidetzari hobetzeko.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Tuterako Udala.
- Magrebtarren elkarteak.
- SMEICI.
- Auzoko beste elkarte batzuk.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

- Sustatzaile komunitarioa: Tuterako Udaleko Gizarte Ongizatean kontratatutako pertsona.
- Lourdes auzoko talde eragilea.
- Talde koordinatzailea: beste elkarte batzuen ordezkariak ere parte hartzen dute, horietako batzuk talde eragileko kide ez izan arren.
- Lourdes auzoko elkarte guztiek parte hartu duten bilerak. Sustatzaile komunitarioak eta Lourdes auzoko talde eragileak dinamizatu dituzte

△ WEB ERREFERENTZIA:

Ez dago.



HAURREK ETA GAZTEEK PARTE HARTZEKO PROZESUAK (ZIZUR NAGUSIA)

△ LURRALDE EREMUA:

Zizur Nagusia

△ NOIZ GARATU DEN:

1994tik gaur egun arte

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Haurrek parte hartzeko organoak Zizur Nagusiko haurren eta gazteen ahots eta ordezkariak dira. Garaipen demokratikoa eta herritartasun aktiboa sustatzen dituzte. Neska eta mutilak zein haien interesak eta iradokizunak ikusarazten dira. Haien bitartez eta zenbait jarduera eginez (talde lana, bilerak udalbatzarekin, Udalaren osoko bilkura bat antzetzuz, etab.), neskek zein mutilek neurriak proposatzen dituzte, udalerriko haurren eta gazteen bizi kalitatea hobetzeko.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarre edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarre edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoak: elkarreak eta erakundeak
Inplikazioa	<input type="checkbox"/> Sare zabala <input checked="" type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input checked="" type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Ekimena 1994. urtean sortu zen. Gaztetxeko hezkuntza taldeak (Zizur Nagusiko Udala) lantalde finkoa sortu zuen borondatez elkarlanean aritu nahi zuten 11 urteko hurrekin. Talde hori haurren udalbatza da, eta Udalbatzak adina kide ditu, baina alkaterik gabe.

2018an gazteek parte hartzeko bi organo gehiago sortu ziren. Gaztekide (12-15 urte), haurren udalbatzak berak proposatuta, eta Mugi (14-17 urte), aurrebegiraleen presuntakuntzaren jarraipen modura.

Zizur Nagusiko Udalak zuzentzen du prozesua, herriak esku hartu eta parte hartzeko prebentzio programako (Pauma SL) hezkuntza taldea arduratzen da neska eta mutilekiko lana lagundu eta koordinatzeaz.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzua
- Ikastetxe Publikoak (3 ikastetxe)
- Udal alorrak: Hirigintza, Kultura, Berdintasuna, OGZ, Kirolak...
- Udalbatza
- Gurasoen elkarreak
- Beste batzuk, garatu beharreko ekintza eta proiektuen arabera

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

- Hiru neska eta mutil talde, adinaren arabera banatuta.
- Lan batzordeak.

- Bilerak udalbatzarekin.
- Udalaren osoko bilkura

△ WEB ERREFERENTZIA:

Ez dago.

MESKITAREN ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK (MARTZILLA)

△ LURRALDE EREMUA:

Martzilla

△ NOIZ GARATU DEN:

2019ko apirila

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Martzillako komunitate islamiarrak Gurutze Gorriaren Kulturarteko Bitartekaritza Zerbitzuaren laguntza eskatu du meskitan ateak zabaltzeko eguna antolatzeko, bertako herritarrek eta herrian bizi diren magrebtarrek elkarrengana hurbiltzeko eta elkarren ezagutza handiagoa izan dezaten.

Meskitako Batzarrak antolatu du egun hori. SMEICIk laguntza eman zien egun horretan zer jarduera egin zitzaketen proposatuz, SMEICIk aurretik parte hartu duen esperientziak erreferentzia hartuta. Udalaren baimen egokiak eduki behar dituztela esan zitzairen. Elkarte eta erakunde publikoei gonbidapen pertsonalizatuak igortzea aholkatzeaz gain, zer jarduera egin zitzaketen ere proposatu zitzairen.

Jardunaldiaren helburua kultura islamiarra, eta marokoarra zehazki, ezagutzea izan da, herriko musulman gehienak jatorri horretakoak dira eta. Meskitaren Batzarreko buruak ongietorria eman zien hartaratu ziren guztiei. Gerora, alkateak, Guardia Zibilaren ordezkari batek eta Foru Gobernuaren ordezkari batek herrian kulturarteko bizikidetza sustatzearen garrantziaz hitz egin zuten. Ondoren, Komunitate Islamiarraren ordezkari batzuek ere egin zuten ildo horretako hitzaldi bana. Gurutze Gorriaren Kulturarteko bitartekariak kultura magrebtarra are gehiago ulertu ahal izateko kultur gakoak jakinarazi zituen. Eta, azkenik, gazte magrebtar batzuek bizikidetzari buruz dituzten kezken berri eman zuten, eta meskita zein espazio publikoak gazteen jardueretan erabil daitezzen irekitzeko ere eskatu zuten. Jardunaldia amaitzeko, Marokoko pastak eta tea eskaini zizkieten bertaratutakoei. Jarduera guztiak meskitaren barruan izan ziren, eta haren barruan sartzeko aukera izan zuen, beraz, ezagutzeko interesa zuen orok.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoia: elkarateak eta erakundeak
Inplikazioa	<input type="checkbox"/> Sare zabala <input checked="" type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Martzillako komunitate islamiarra.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Martzillako komunitate islamiarra.
- Martzillako Udala.
- SMEICI.
- Martzillako ikastetxe publikoa eta Gurasoen Elkarte.
- Erretiratuen elkarte.
- Parrokia.
- Udaltzaingoa

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

- Meskitaren ordezkariak eta herriko Udalaren ordezkariak aurrez aurreko bilerak egin zituzten. Informazioa emateko eta antolatzeko bilerak izan dira.
- Ez da talde eragilerik eratu; Udalari jardunaldiaren berri eman zioten, zegozkion baimenak eskatu zituzten eta egin beharreko jardueren berri eman zieten une oro. Gainera, ateak zabaltzeko egunera joatera gonbidatu zuten.
- Beste gizarte eragile batzuek eta herritarrek oro har parte har zezaten sustatzeko, zuzenean gonbidatu zituzten posta elektronikoz, herrian kartelak paratuz edo beste elkarte batzuen egoitzan eginiko aurrez aurreko bileren bitartez (erretiratuen elkarte, guardia zibila...).

△ WEB ERREFERENTZIA:

Ez dago.

ETXABEAK (ZIZUR NAGUSIA)

△ LURRALDE EREMUA:

Zizur Nagusia



△ NOIZ GARATU DEN:

2000tik gaur egun arte

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Etxabeen fenomenoa Zizur Nagusiko gazteen artean oso zabalduta dagoen errealitatea da; gazteen taldeak etxabeak alokatzeko elkartzeko dira, eta aisiarako erabiltzen dituzte elkarrekin. Aisiaz gozatzeko era horren zabalpenean eragin dute, bate-tik, aisiarako pribatutasun handiagoa aurkitu nahiak, eta bestetik, gazteek baliabide ekonomiko handiagoak edukitzeak.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarre edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarre edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoa: elkarreak eta erakundeak
Inplikazioa	<input type="checkbox"/> Sare zabala <input checked="" type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

Elkartzeko esparru horiei esker, horrelako tokiak gazteekin lan egiteko eta elkartzeko beste espazio bat gehiago bihurtu dira.

Honelako gaiak lantzen dira: komunitatearekiko bizikidetzak, bitartekaritza, etxabeen arteko harremana, aisia eta astialdia, drogak, osasun afektibo sexuala, ekimenen proposamenak, udalaren araudiak eta ordenantzak (eragiten dietenak)...

Honako hauek egiten dira:

- ▶ Irteera jarraitu eta programatuak
- ▶ Datu basea urtero eguneratu.
- ▶ Bitartekaritza komunitarioa (bizilagunak-etxabeak, etxabeak-etxabeak).
- ▶ Kide izateko sentimendua sortzeko jarduerak

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Ekimena 2000. urtean sortu zen, Gaztetxeko hezkuntza taldearen aldetik –Zizur Nagusiko Udala– (Pauma SL).

Hezkuntza taldeak konfiantzazko harremana sortu nahi zuen etxabeen erabiltzaile gazteekin, horregatik, etxabe bakoitzarendako erreferentziako profesional bat paratu da, era horretan konfiantza ez ezik, beharrak zein iradokizunak adieraztea errazteko, eta haiekin banaka zein taldeka lan egin ahal izateko.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- ▶ Oinarrizko Gizarte Zerbitzua: prebentzio, parte hartzeko eta esku hartzeko programaren hezkuntza taldea.
- ▶ 21-23 etxabe gutxi goiti-beheiti.
- ▶ Udal alorrak: Hirigintza, Kultura, Berdintasuna, OGZ, Kirolak, Udaltzaingoa.
- ▶ Beste batzuk, garatu beharreko ekintza eta proiektuen arabera

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

- ▶ Bilerak udalbatzarekin.
- ▶ Bilerak, jorratu beharreko gaiaren eta eragile inplikatuaren arabera

△ WEB ERREFERENTZIA:

Ez dago.

BERTAN: ZAHARTZE AKTIBORAKO ESTRATEGIA (SAKANA)

△ LURRALDE EREMUA:

Sakana

△ NOIZ GARATU DEN:

2016tik gaur egun arte

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Proiektu komunitario honek helburutzat du populazio barreiatua duen Sakanako landa eskualdean zahartze aktibo eta osasungarria laguntzea. Sakanako adineko pertsonen bizitza osoa ahalbidetzen dien

ingurunea garatu asmo du, ingurunean bertan geldituta eta garapen pertsonalerako behar dituzten zerbitzuak eta aukerak edukita.

Mugaz gaindiko POCTEFA bat eskatu da beste erakunde batzuekin elkarlanean; Nafarroako Gobernuak ere parte hartzen du horretan, eta finantzaketa ematen du proiektuari laguntzeko.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoak: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input checked="" type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Sakanako garapenerako agentziaren esku daude esku-hartze komunitarioaren lidergoa eta koordinazioa, eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen hiru mankomunitateek babestuta. Agentziak proposatuta ekin zaio; hala, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Nafarroako Zahartze Aktibo eta Osasungarriko Estrategiaren arduradunekin paratu dira harremanetan haren teknikariak.

Estrategia hori oinarritzat hartuta, hori beren eremuan aplikatzeko proposamena egin dute, eta gaiarekin zerikusiren bat izan dezaketen eragile, erakunde, enpresa eta abarrei dei egin diete, parte har dezaten. Ekintza nagusiak zehaztu eta lantaldeak sortu dituzte ekintzok gauzatzeko.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Sakanako Garapenerako Agentzia; Sakanako Mankomunitatea; Sakana eskualdeko udalak; Altsasuko, Etxarri Aranazko eta Irurtzungo gizarte ongizateko, kiroletako eta kulturako

udal arloak zein osasun etxeak; Altsasuko, Etxarri Aranazko eta Irurtzongo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak; Sakanako ikastetxeak eta lanbide hastapeneterako ikastetxeak; eskualdeko ostalaritza, zerbitzuak, berrikuntza, domotika eta abarrak; Josefina Arregui klinika; erretiratuen zentroak, Osasun Eskola, Nafarroako Adinekoen Eskola.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Sakanako Garapenerako Agentziaren esku daude ekimenaren koordinazioa eta kudeaketa. Lantalde batzuk eratu dira jardun ardatz bakoitzean:

- 1. ardatza: Bizitza aktibo eta osasungarria hobetzea:
 - ↳ Ariketa fisikoaren eskaintza hobetzea.
 - ↳ Aholku eta ohitura osasungarriak.
 - ↳ Menu osasungarriak eta catering egokituak
- 2. ardatza: Ingurunea eta eskualde garapena:
 - ↳ Etxebizitza egokituen diseinua.
 - ↳ Zaintzeko eta eraberritzeko zerbitzuak eskaintzea.
 - ↳ Zahartze aktiboko lanbide heziketa.
 - ↳ Garraio egokituak.

△ WEB ERREFERENTZIA:

Ez dago proiekturako berriazko webgunerik. BERTAN gunea diseinatzen ari dira Sakanako Garapenerako Agentziaren webgunean.

SANDUZELAI AUZOKO (IRUÑA) OHITURA OSASUNGARRIEN PROIEKTU SOZIOSANITARIOA

△ LURRALDE EREMUA:

Sanduzelai auzoa.

△ NOIZ GARATU DEN:

2017. urtean hasi zen, eta segitzen du gaur egun

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Proiektu honek prebentzioa eta osasunaren sustapena lagundu nahi ditu, jarduera fisiko berritzaileak eta elikadura ohitura egokiak bultzatuz, bizi kalitatea eta obesitatearen prebentzioa laguntzeko, bai eta Sanduzelai auzoko haurren eta gazteen garapen soziopertsonala ere. Horretarako, diziplinarteko kudeaketa eta sareko lana egiten dira.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarre edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarre edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoak: elkarreak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

Osasun etxeak eta auzoko unitateak familiei informazioa eman, gainbegiratu, akonpainamendua zein jarraipena egiten dute, betiere laguntza behar badute ardurapean dituzten adingabeen osasuna zaintzeko orduan.

Jarduerarik ezeko eta sedentarismoko arriskua duten neskek, mutilek eta gazteek parte har dezaten laguntzen da, berdinkideekin elkarreraginean aritzeko esparruak sortuz. Horretarako, Kim-Bal kirol jarduera sortu da.

Inplikaturik dauden sektore eta zerbitzuetan ohitura osasungarriak sustatzeko ikuspegiak, planteamenduak eta jarduerak sustatzen dituzte, eta garapen soziodibertsionala laguntzen dute ekintza atsegin emate eta adierazgarrien bitartez. Sanduzelaiko ohitura osasungarrien lehen astea antolatuta da.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

El Proyecto surge desde el Servicio de Pediatría del Centro de Salud de San Jorge y la Unidad de Barrio de Servicio Social de San Jorge y se propone a la Red de Infancia y Juventud del Barrio.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

La Red de infancia y juventud del Barrio de San Jorge: Centro de Salud, Unidad de barrio, centros educativos del barrio y sus APYMAS, biblioteca pública, asociación la Majarí, SEI, Servicio Intercultural, cooperativa de integración social Kamira, otras presencias puntuales.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Existen dos estructuras que son el grupo motor y el grupo de gestión. Ambos lo componen las mismas personas que son: enfermería de pediatría del Centro de Salud, educadora social de la Unidad de Barrio, profesor de educación física y especialista en Kim – Ball.

△ WEB ERREFERENTZIA:

No existe



IKASKUNTZA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA (NAFARROA)

△ LURRALDE EREMUA:

Nafarroa osoko ikastetxeak

△ NOIZ GARATU DEN:

2017tik gaur egunera arte (aurretiko esperientziak ere izan dira)

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Ikaskuntza – Zerbitzu Solidarioa: ikastea komunitatearendako zerbitzua eginez. Hezkuntza proposamena honek ikaskuntza prozesuak eta erkidegoari zerbitzua ematekoak ongi eraturiko proiektu batean konbinatzen ditu; proiektu horretan parte hartzen dutenek prestakuntza jasotzen dute ingurunearen benetako premietan inplikatzeko direnean, hura hobetzeko xedez.

Zentroak Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren Nafarroako Sarea osatzen dute, asmo honekin:

- Nafarroan ikasketa eta zerbitzu solidarioko esperientziak egin daitezkeen sustatzea.
- Ikasketa eta zerbitzu solidarioari buruzko informazioa, prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea.
- Nafarroan garatutako ikasketa eta zerbitzu solidarioko hezkuntza esperientziak ikusarazten laguntzea (horiek erreplika daitezke, edo beste esperientzia berri batzuen ernamuina izan daitezke) eta ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu berrien garapena erraztea, dinamizatzea eta laguntzea hezkuntza maila ezberdinetan (haur hezkuntzatik lanbide heziketa eta unibertsitateraino), baita gizarte arloan ere.
- Gizarte eta hezkuntza eremuko pertsonen eta erakundeen arteko loturak sortzea, beharren berri jasotzea eta ikastetxeen, gizarte kolektiboen eta administrazio publikoen arteko akordioak sustatzea, ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektuetan parte hartzeko interesa dutenean.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Ikastetxeetan garatutako esperientzia partikular modura hasi da. Iruñeko Udalak deialdia bultzatu du azken bi urteetan. Gerora, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren sarea sortu da.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Hezkuntza arloko, erakunde sozialetako eta erakunde publikoetako pertsonak, zerbitzu publikorako borondatea dutenak, zeinek ikasketa eta zerbitzu solidarioa lotzen baitute hezkuntzaren berrikuntza eta kalitatearekin, gizarte ehuna indartzearekin, neska eta mutilen beren ikaskuntzan protagonismoa hartzearekin eta beren ingurune hurbil edo globalaren behar errealei erantzun dakien eragiteko gaitasunarekin.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoa: elkarrekin eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input checked="" type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren Nafarroako Sarea (aurretik azaldutako eragileez osatua).

Era berean, Ikasketa - Zerbitzuko Espainiako Sareko kidea da, eta horren barruan dauden lurraldeko beste talde bultzatzaile batzuekin aritzen da elkarlanean.

△ WEB ERREFERENTZIA:

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren Nafarroako Sarea

<https://redayssnavarra.org/category/experiencias/>

△ REFERENCIAS A EXPERIENCIAS DE CENTROS NAVARROS:

Nafarroako ikastetxeen esperientzien erreferentziak: Ikastetxe batzuek sariak erdietsi dituzte bertako eta Espainiako deialdietan.

<https://www.europapress.es/navarra/noticia-premios-nacionales-aprendizaje-servicio-2019-entregaran-diciembre-pamplona-20190312140205.html>

<https://www.europapress.es/navarra/noticia-premios-nacionales-aprendizaje-servicio-2019-entregaran-diciembre-pamplona-20190312140205.html>

IKAS KOMUNITATEAK (NAFARROA)

△ LURRALDE EREMUA:

2019an, Nafarroa osoko 9 ikastetxe ikas komunitate bihurtu dira. 2019-2020 ikasturtean, eraldatzeko prozesuari ekitean gehiagok bat eginen dutela aurreikusten da.

△ NOIZ GARATU DEN:

2010etik gaur egunera arte

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Ikas Komunitateak proiektuaren abiapuntua da irakaskuntza komunitate osoaren ardura dela, eta helburutzat du eskola porrota gainditzea, ikasgeletako bizikidetzak hobetzea eta hezkuntza eta gizarte arloko berdintasuna erdiestea. Testuinguru bakoitzean lortu nahi den eskola amesteko proposamenean oinarrituta, komunitateko eragile ezberdinak ukitzen dituzten jarduketak proposatzen dira. Jarduerak honako ardatz hauek dituzte: ikaskuntza sustatzea, ikasleek gaitasunak garatzea eta ingurunean eraldaketak eragitea, komunitateko kideen elkarreraginaren eta elkarrizketaren bidez; horrek inplikazio maila handia eskatzen du.

Proiektua abiaraztean, funtsezkoa da komunitatearen parte-hartzea: parte hartzeko bideak ireki behar dira, hezkuntza komunitateko kide guztiek erabakiak hartzean parte

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoa: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input type="checkbox"/> Sare zabala <input checked="" type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

hartze aktiboa izan dezaten, eta erabaki horiek gauzatzeko eta baloratzeko konpromisoa har dezaten.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Komunitateen proiektua duela 9 urte inguru hasi zen Nafarroan, hiru ikastetxek parte hartuta. Hurrengo urteetan ikastetxe gehiago batu dira, eta, une honetan, hura zabaltzea bultzatzen ari dira sarea bera eta Hezkuntza Departamentua.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Ikastetxeak, familiak, erakundeak, elkarte sozialak eta komunitateko kide guztiak.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

- Batzorde mistoak, irakasleek, ikasleek eta senideek parte hartuta (bai eta herriko edo auzoko beste alderdi batzuk), zeinetan proposamenak egiten diren eta ikaste-arearen bilakaerari buruzko erabakiak hartzen diren.
- Gaur egun, Ikas Komunitate osatutako ikastetxeen sare bat eratu da, Komunikas izenekoa; aldi behin biltzen dira ikastetxeok, esperientziak elkarri adierazteko eta baterako erabakiak hartzeko

△ WEB ERREFERENTZIA:

Egiten ari dira sarearen webgunea.

HAUR ETA GAZTEENDAKO PROGRAMA (ZIZUR NAGUSIA)

△ LURRALDE EREMUA:

Zizur Nagusia

△ NOIZ GARATU DEN:

1992tik gaur egun arte

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Proiektu honek gazteak beren ebolutzio prozesuaren subjektutzat hartzen ditu, eta haien banako eta gizarteko garapena sustatzen du, hala banako nola taldeko ekintzak eginez. Lan honen bidez taldeak/kolektiboak indartu eta lagundu nahi dira, beren helburuak eta interesak erdiets ditzaten, horretarako prebentzioaz, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeaz eta parte-hartzeaz baliatuz.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Maila politikoa <input type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoak: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Ekimena 1992. urtean sortu zen. Zizur Nagusiko udalak herriko komunitatea garatzeko eta gizarte ehuna sendotzeko lanaren alde egin zuen, haurrei eta gazteei zuzenduta.

Horretara lantalde profesionala bideratzen du (Pauma SL), funtsezko eginkizun hauekin: behatzea, bideratzea, animatzea eta aberastea, parte hartzea sustatzeko.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzua (gizarte langile bat) eta Haur eta Gazteendako Programako hezkuntza taldea (6 hezitzaile eta gizarte langile).
- Sareko lana Udal Arloekin: Hirigintza, Kultura, Berdintasuna, OGZ, Kirolak, Udaltzaingoa.
- Sareko lana eragile komunitarioekin: ikastetxeak, institutua, osasun zentroa, gazte taldeak (kristauak, feministak, etxabeen erabiltzaileak, gurasoen elkarteak, gastro-nomia elkarteak, saltokiak...).
- Elkarlana beste eragile batzuekin, garatu beharreko ekintza eta proiektuen arabera: Droga mendekotasunaren aurkako Foru Plana, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua, Nafarroako Gobernuaren Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzua.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

- Hezkuntza taldearen, talde/kolektiboen eta udalaren arteko etengabeko koordinazioa.
- Parte hartzera bideratutako jardueren eta ekintzen programazioa (parte hartzeko organoak, kale eta etxabeetan jarduteko plana, kanpainak, aisia jarduerak, lantegiak, gazteen parte-hartzea sustatzeko prestakuntza...).
- Plangintza: lan proiektu bat egitea 4 urtean behin.

△ WEB ERREFERENTZIA:

Ez dago.



PASARELAK: GAZTEEN AKTIBAZIOA ETA EMANTZIPAZIOA (NAFARROA)

△ LURRALDE EREMUA:

Navarra

△ NOIZ GARATU DEN:

2013-2019

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Pasarelak proiektua gazteen aktibazio eta emantzipaziorako proiektu bat da, enpleguarekin eta gizarte parte-hartzearekin hastapenetako harremanak izan nahi dituzten 16 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Proposatutako aktibazio ibilbideak aste batzuetako enplegu ordainduarekin batera boluntario ekintzak eta mugigarritasunak hartzen ditu barnean. Gazteak lurraldearekin lotzea da asmoa, beste toki batzuetako gazteak ezagutzeko eta haiekin elkarreraginean aritzeko moduan jartzea, bai eta ekarpenak egitekoan ere. Komunitatea da agertokia eta hori indartu nahi da azken batean. Banako nahia eta norberaren inguruabarrak oinarri hartuta, ahalik eta talderik heterogeneoenak sortuko dira; adina da izena emateko irizpide bakarra. Enpleguaren bidez gizartearekiko lotura zein bizitza komunean parte har dezaten sustatzea da helburua.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input checked="" type="checkbox"/> Mistoa: elkarrekin eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Hezkuntza eta hastapeneko programa bat da. Nafarroa Etorkizun Berria Elkarrekin sustatzen du; hala, Udalekin paratzen da harremanetan, eta proposamena beren zerbitzuen artean sartzen dute udal horiek. Erakunde sozial bat izatea lagungarria da batzuetan elkarrengandik hurbilegi dauden tokiko harremanak trianguluzeko, eta harreman horiei oxigenoa emateko.



△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Udalen departamentu guztiak, elkarte sustatzailea eta gizarte ehuna, ikastetxeak, institutuak, osasun zentroak..., zer lan ekin behar zaion.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Udaleri guztietan pilotaje talde bat sortzen da, honako hauez osatuta: Gizarte Zerbitzuak, Gazteria eta Nafarroa Etorkizun Berria elkarteak. Talde horrek programa eta lanak zehaztuko ditu, eta jardueraren jarraipena egingen du. 2013tik Lizarrako (2017ra arte), Corellako, Uharteko, Atarrabiako eta Tuterako Udalek parte hartzen dute.

△ WEB ERREFERENTZIA:

- <https://espaciokrea.org/activacionjuvenil.htm>
- www.limitisforumproiektua.org
- http://laboeduca.org/wp-content/uploads/2019/02/pasarelas-publicacion_baja.pdf
- <http://laboeduca.org/download/youthlab-youthactivation-erasmus-espanol/>

ADINEKOEN ALDEKO ITUNA, DONIBANE AUZOA (IRUÑA)

△ LURRALDE EREMUA:

Donibane auzoa - Donibane

△ NOIZ GARATU DEN:

2018ko martxotik - 2021eko ekainera (luza daiteke)

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Donibane auzoan hiri osoko zahartze indize handiena dago. Haien gaixotasunak sendatu eta kontrolatzeaz gain, bestelako faktore batzuek ere eragiten dute pertsona horien osasunaren eta bizi kalitatearen egoeran, hala nola auzoaren hirigintza diseinuak, istripu arriskuak, erosahalmenak edota sare sozial sendoa, sormenezko aisia, kultura irisgarri... izateak.

Horren guztiaren ganean esku hartzeko, beharrezkoa da faktore horietan eragiteko nolabaiteko gaitasuna duten erakunde, kolektibo eta zerbitzuek modu konprometitu eta baterakoan jardutea, betiere horien jarduna, zuzenean edo zeharka, adinekoei zuzentzen bazaie.

Hori da Itunaren azpian dagoen oinarria, zeinaren helburua baita zahartzearen hiru zutabeei batera heltzeko proposamenak diseinatzea: osasuna, parte-hartzea eta segurtasuna. Auzoko askotariko erakunde eta kolektiboek sinatu dute itun hori.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input checked="" type="checkbox"/> Mistoa: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input checked="" type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Osasun etxearen ekimenez sortu zen; hala bada, lehen bilera baterako deia egin zien, 2017ko urriaren 4an, adinekoekin lotutako jarduna duten auzoko kolektibo, zerbitzu eta erakundeei. Bilera horrez geroztik, helburu jakin batzuk, bai eta horiek erdiesteko jarduerak batzuk ere, erabaki zituzten, Nafarroako Gobernuaren zahartzeko estrategia une oro erreferentzia esparru gisa edukita. Elkarrekin lan egiteko dinamika hasi zuten, aldi bereko bilerak eginez (hilean behin gutxienez, oporraldian izan ezik). Bilera horiek osasun etxean izan dira (deitzeaz eta aktak egiteaz arduratu da).

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Parte hartzen duten kolektibo guztiak: Kirol taldeak (S.C.D.R Anaitasuna eta Donibane Kirol Elkartea); Martin Azpilikueta Merkataritza Elkartea eta Donibane/Ermitagaña/Mendebaldeko Merkataritza Elkartea); Yamaguchiko liburutegia; Donibaneko Cáritas; NAFARROAKO DYA; Nafarroako Psikologia Elkargoen Zahartzeari buruzko Lantaldea; San Juan Xar auzo elkartea; Solera Asistencial taldea; Donibaneko auzo unitatea (Udal Gizarte Zerbitzuak), gizarte ekintzaileak, Farmaziak, Udaltzaingo Komunitarioa, auzoko zinegotzigoa, OSKIA erretiratuen elkartea, osasun etxea.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:


- ▶ Talde eragileak, kolektibo bakoitzaren ordezkariak osatuta. Hilean behin biltzen da, baina azken hilabeteetan hamabost egunean behin elkartu da. Bileretara erakunde bakoitzeko kide bat edo gehiago joan daitezke, baina bozkatzeko, boto bakarra baino ezin izanen du eman erakunde bakoitzak. Osasun etxeak deitzen du taldea:
- ▶ Azpibatzaileak: proiektu zehatzak egin eta abian jartzeaz arduratzen dira: Boluntariorik gabeko proiektua, boluntarioen sare fidagarria sortzera bideratuta; ADI proiektua, gizarte isolamenduko eta nahi gabeko bakartasuneko egoerak prebenitu eta antzemateko; Donibaneko adinekoen beharrak beharren azterketa diagnostikoa...

Gaur egun talde hori elkarten elkarte gisa eratzeko bidean dago, IFZa edukitzeko, era horretan, besteak beste, dirulaguntzen deialdietan parte hartu ahal izateko.

Orain arteko jarduerak (hitzaldiak, kanpainak, prentsaurrekoak...) askotariko lokaletan egin dira: erretiratuen elkartea, liburutegia, osasun etxea, Civican...

△ WEB ERREFERENTZIA:

Ez dago.



HAURRENDAKO I. UDAL PLANAREN PARTE HARTZEKO DIAGNOSTIKOA (IRUÑA)

△ LURRALDE EREMUA:

Iruñeko auzoak

△ NOIZ GARATU DEN:

2017 - 2018

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Iruñeko Haur eta Nerabeendako I. Plana inspiratu duten kontzeptzio-tik eta filosofiatik abiatuta, hau da, haurrek eta nerabeek hiriko eguneroko bizitzako gaietan parte hartze handiagoa izatea eta hori bultzatzea, hainbat parte hartze prozesu garatu dira Iruñeko haur eta nerabeekin; hala bada, adingabeek zer duten esateko eta ekartzeko entzuteko eta aitortzeko esparruak ireki dira.

Zehazki, diagnostikoa honako honetan datza:

- ▶ 1. HFLk eta PEKZk Iruñeko auzoetan egindako haurren eta nerabeen diagnostikoa.
- ▶ 2. Ikastetxeetan hiri-dimentsiotik egindako haurren eta nerabeen diagnostikoa.
- ▶ 3. Iruñeko elkarte ehunari buruzko diagnostikoa, haurren eta nerabeen alde lan egiten duten erakundeekin izandako hainbat elkarrizketa eta eztabaidaren bitartez. Herritarren parte-hartzea dinamizatzeko zerbitzuak eginda.
- ▶ 4. Zaurgarritasun sozialeko egoeran dauden haur eta nerabeei buruzko diagnostikoa. Azkenik, galdeketak eta eztabaida taldeak egin dira Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile diren familiekin eta haurren babesaren esparruan lan egiten duten erakunde eta profesionalekin.

Iruñeko auzoetan gauzatutako prozesu diagnostikoan boluntario lanetan aritzen diren haur, nerabe eta gazteek beren hurbileneko ingurunea aztertu dute: eurak bizi diren auzoa. Hala, beren balorazioa egin eta eman dute pertsona adingabeen eguneroko bizimoduko eremu adierazgarrietan, aipatutako auzo horiek eskaintzen dituzten ahuleziei, indarguneei, aukerei eta mehatxuei buruz.

Beraz, mutiko, neskato eta nerabeek aditzera eman dute nola ikusten eta sentitzen dituzten helduen ekoizpenak eta zer proposamen dituzten hiria haur eta nerabeekin atseginagoa izan dadin. Diagnostikoa egiteko formula jolasean, sentsazio eta emozioen proiektioan eta neska eta mutilen arteko eztabaida eta adostasun dinamiken garapenean oinarritutako metodologiatik abiatu da, haur eta nerabeen garapeneko etapa bakoitzaren ezaugarri diren ahalmenekin koherente izanik.

Bestalde, auzoaren diagnostikoa egiteko eginkizun honetan, honako hauek izan dira partaide: familiak, auzo elkarteak, haur sareetan parte hartzen duten edo auzoko mutiko,

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoak: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input checked="" type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

neskato eta nerabeekin ohiko harremana duten profesionalak: pediatrak, erizaintzako langileak, irakasleak, dendariak, gizarte eta hezkuntza lanetan aritzen diren pertsonak, etab.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Jatorria Iruñeko auzo batzuetan lan egiten duten eragile sozialek diagnostiko komunitarioak bultzatzeko izan duten borondatean dago, eta diagnostiko horiek pertsonen, erakundeen, organizazioen eta zerbitzuen parte-hartzeari irekita egoteko borondatean.

Prozesua zuzendu dute Iruñeko Udalaren Gizarte Ekintza Alorreko Haurtzarora eta Familia Programatik. Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuak. Udalaren Haurrendako Planaren Talde Eragilea.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Auzoetako sareak, prebentzioko eta aisia eta astialdiko erakundeak, auzoetako profesionalak eta ikastetxeak.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Diagnostikoa egiteko, honako egitura hauek hartu dira kontuan:

- ▶ Talde bultzatzailea
- ▶ Talde eragilea
- ▶ Auzoetako profesionalarteko sareak
- ▶ Ikastetxeak
- ▶ Auzoetako zentro komunitarioak

△ WEB ERREFERENTZIA:

<https://erabaki.pamplona.es/processes/PlanMunicipalInfanciaPamplona>



SARETU SANDUZELAIN (IRUÑA)

△ LURRALDE EREMUA:

Sanduzelai auzoa

△ NOIZ GARATU DEN:

2015eko azarotik 2016ko azarora

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Sanduzelaiko bizilagunek auzoan lanean aritu ziren erakundeekin izandako elkarrizketa eta bileren ondorioz, auzoan haurren eta nerabeen eskubideen alde egiten den sareko lana era konprometitu bidez ikusarazi beharra ikusi zen.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input checked="" type="checkbox"/> Mistoa: elkarrekin eta erakundeak
Inplikazioa	<input type="checkbox"/> Sare zabala <input checked="" type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

Lan hori guztia haurrei eta gazteei buruzko jardunaldi hauetan zehaztu zen: SAREtu Sanduzelain jardunaldiak 2016ko azaroaren 16, 17 eta 18an egin ziren, Umeen eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna zela eta.

Jardunaldietan, auzoko zenbait adingabek ikasle laguntzaileen, institutuko bitartekaritza taldeen eta Umevisión-en esperientziak aurkeztu zituzten. Familia zenbaitek Sanduzelaiko liburutegian egunerokoan izandako bizipenen berri eman dute. Zer auzo dugun eta zein nahi dugun hausnartu zuten, haurren eskubideen ikuspegitik. Amaitzeko, txokolata egon zen. Horrekin batera, haurren lan batzuk erakutsi zituzten, haien ametsen eta nahien berri emateko.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Sanduzelaiko Haurren Sarea eta Sanduzelaiko Herri Unibertsitatea. Lidergo nagusia Haurren Taldearen eta auzoko profesionalen sarearen esku zegoen.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Sanduzelaiko Haur eta Gazteen Sareak antolatu zituen, sare hori honako hauez osatuta dago: hezkuntza zein osasun arloko 15 erakunde baino gehiago, elkarte komunitarioak, auzo unitateak, bai eta familiak eta herritarrak ere.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Gainerako lan batzordeen talde eragile-koordinatzailea. Talde eragileko kide bakoitza lan batzorde bateko kide ere bazen.

△ WEB ERREFERENTZIA:

<https://sanjorgesanduzelai.wordpress.com/2016/11/02/reactivando-la-red-se-muestra-en-el-vecindario/>

ESKOLABIDEAK (IRUÑA)

△ LURRALDE EREMUA:

Iruñeko Jesusen Bihotza ikastetxearen ingurunea

△ NOIZ GARATU DEN:

2018 – 2019 ikasturtea

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Ikastetxean eta ikastetxerako ibilbide seguru eta iraunkorren sarea sortzea, ikaskuntza eta zerbitzuko metodologia aplikatuta.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoa: elkarrekin eta erakundeak
Inplikazioa	<input type="checkbox"/> Sare zabala <input checked="" type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

Colecaminos proiektua eskola bide seguru eta iraunkorren esperientzia bat da, ikastetxera joateko eta handik etortzeko ohiturak aldatzea eskaintzen duena. Ikastetxearen aldameneko eremuaren bide beharren ondorioz sortu zen, sartzeko eta ateratzeko orduetan zirkulazio istripuak, ibilgailu pilaketak zein airearen kutsatzaileen maila handia eragiten zirelako, besteak beste. Ekimen honen bitartez ikastetxeko ikasleek eremu publikoa gehiago aprobetxatzea lortu nahi zen, eta adierazitako ibilbideetan haien autonomia eta segurtasuna sustatzea.

Ikastetxean arazo horri denboran iraunen zuen konponbidea nola eman aztertu zuten, baina konponbide horrek ikasleendako ikasketa ariketa gisa balio izatea ere nahi zuten. Iraunkortasun hori bermatu da ikasleen, irakasleen, familien eta Iruñeko Udalaren Mugikortasun eta Hezkuntza arloen inplikazioarekin; azken horiek logistika eta bideetako seinaleak posible egin dituzte.

Ikaskuntza eta Zerbitzuko metodologia hezkuntza proposamena da eta ikaskuntza prozesuak eta komunitateari zerbitzua ematekoak ongi eraturiko proiektu batean konbinatzen ditu; proiektu horretan parte hartzen dutenek prestakuntza jasotzen dute ingurunearen benetako premietan inplikatzeko direnean, hura hobetzeko xedez.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Iruñeko Jesusen Bihotza ikastetxeko ikasleak eta irakasle taldea.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- ▶ Ikastetxea
- ▶ Familiak
- ▶ Iruñeko Udaleko Hezkuntza Alorra
- ▶ Iruñeko Udaleko Mugikortasun Alorra
- ▶ Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren Sarea

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Lehen Hezkuntzako irakasle eta ikasle batzuek zein Nafarroako Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren Sareak zehaztu dute proiektua.

Jarraipena honako hauen esku dago: Iruñeko Udaleko Hezkuntza Alorra, Jesusen Bihotza ikastetxea, Iruñeko Udalaren Haurrendako Plana eta Mugikortasun Alorra.

△ WEB ERREFERENTZIA:

<http://pamplona.redsagradorazon.es/index.php/noticiass/1298-1er-premio-pamplona-colecaminos>

PLANGILEAK (IRUÑA)

△ LURRALDE EREMUA:

Iruñeko ikastetxeak (6-16 urte)

△ NOIZ GARATU DEN:

2019ko maiatzean hasi zen

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Nor dira?

- ▶ Gazte eta/edo ikastetxe batzuen ordezkariak.
- ▶ Ikastetxe/ikasgela bakoitzeko barne dinamika eta prozesuei edo beharrari jarraikiz hautatzen dituzte.
- ▶ Ekintzak lehendik dauden beste batzuekin uztartzen dituzte (bozeramaileak, ordezkariak, bizikidetzako laguntzaileak).
- ▶ Neska, mutil eta nerabe motibatuak, parte hartzeko interesa dutenak, taldeen ordezkariak.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarre edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarre edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Misto: elkarreak eta erakundeak
Inplikazioa	<input type="checkbox"/> Sare zabala <input checked="" type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

Zer egiten dute?

- ▶ Ikasturteko hiru alditan gutxienez, plangileei dei eta entzun egiten diete Planaren ordezkariak, eta haiekin solastatzen dira, haien eskaerak eta proposamenak biltzen dituzte eta Mentore batzordearen erantzunak itzultzen dituzte.
- ▶ Planaren ordezkari diren Udaleko teknikariek partaidetzaren beraren balioa nabarmentzen dute, eta Plangileen taldeak onartu, motibatu eta babesten dituzte.
- ▶ Motibatze lan horren barruan ikastetxeetako plangileen topaketak antolatuko dira, axola dieten gaiei buruz solas egin dezaten.
- ▶ Plangileak ikastetxeetako parte hartze esperientzien bozeramaileak dira; ikaskuntza eta zerbitzuko esperientzienak, adibidez. Besterik...
- ▶ Plangileen proiektuak parte-hartzearen balioa nabarmendu nahi du; komunikazio kanala sortu nahi du batez ere.

- ▶ Parte-hartzeari zentzua eman nahi dio ikastetxeetan egiten diren esperientzien balioa nabarmenduz.
- ▶ Ikastetxeetako ikaskuntza esperientzia eta ingurune hurbilean duten harremanetarako babes eta osagarri izan nahi du.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Udalaren Haurrendako Programa / Haurrendako Plana

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Auzoetako haur taldeak, ikastetxeak, auzoetako Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuak, haurren sareak.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

- ▶ Ikastetxeak.
- ▶ Auzoetako haurren taldeak
- ▶ Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuak.
- ▶ Auzoetako sareak.
- ▶ Haurren eta Nerabeen Web Plataforma <https://www.pamplona.es/plan-de-infancia>
- ▶ Erabaki <https://erabaki.pamplona.es/processes/PlanMunicipalInfanciaPamplona?locale=eu>
- ▶ RSS
- ▶ Skolae: “Eraikitzen jakitea, ekarpenak egiten jakitea. Lidergoa, ahalduntzea, eta partaidetza soziala ikasketak maila indibidualean zein kolektiboan indartuko gaitu, eta berdintasunetik zein errespetutik gizarte bizitzan parte hartzeko gaitasuna emanen digu. Bakarka zein taldean berdintasuna eragiteko dugun ahalmena antzeman eta ezagutzearen bidez”.

△ WEB ERREFERENTZIA:

<https://www.pamplona.es/plan-de-infancia>



MENDILLORRIKO AINTZIRAKO ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA (IRUÑA)

△ LURRALDE EREMUA:

Mendillorri

△ NOIZ GARATU DEN:

2017 – 2018 - 2019 ikasturteak

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Hiri Ekologia eta Mugikortasun Alorra Mendillorriko aintziran egiten ari den esku-hartzeari laguntzea; pairatu duen narriadurari aurre egiteko, haren ingurumen baldintzak hobetzea eta leheneratzea.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input checked="" type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoa: elkarreak eta erakundeak
Inplikazioa	<input type="checkbox"/> Sare zabala <input checked="" type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

Horrela bada, proiektu honen helburua da hezkuntza komunitatea ingurune hurbila kontserbatzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko subjektu aktibo bihurtzea, bai eta, eremua azterketa eta esperimenezko laborategi txiki bihurtzea eta, horrela, Udalaren eta hezkuntza komunitatearen arteko lankidetzak sustatzea.

Proiektua bi fasetan garatzen da, parte hartzeko bat, eta bestea, ikertzekoa.

1. fasea: 2017-2018 ikasturteko 3. hiruhilekoan hasi zen garatzen. Ingurumen Hezkuntza Zerbitzuak parte hartzeko esku-hartze bat egin zuen ikasleekin ekintza plan txiki bat garatzeko, Mendillorriko aintziraren ingurunearen gaineko informazioa eta sentsibilizazioa hobetzeko.

2. fasea: Irakasleendako curriculum jardura eta gidaliburuaren proposamen bat egitea. Ingurumen Hezkuntza Zerbitzuak eman zituen. Horren bidez leheneratutako aldean ikasleek ikertu eta esperimenezko aukera izan dezaten da asmoa. Ikastetxeak eremuaz jabetu eta haren egoerari buruzko esperimenezko eta jarraipenerako erabiltzea, ikastetxe bakoitzaren azpiegiturretatik beraietatik abiatuta.



△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Iruñeko Udalaren Ingurumen Hezkuntzako taldea

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- ▶ Mendillorriko ikastetxeak, hezkuntza etapa hauetan: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak eta DBHko 1., 2. 3. eta 4. mailakoak.
- ▶ Iruñeko Udalaren Ingurumen Hezkuntzako taldea.
- ▶ Bideberri elkarte

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Ingurumen Hezkuntza taldeak eta ikasgelen tutoreek osatutako talde koordinatzailea.

△ WEB ERREFERENTZIA:

<http://educacionambiental.pamplona.es/comunidad-educativa/proyecto-lago-de-mendillorri/>

IRUÑEKO UDALAREN PREBENTZIO EKINTZA KOMUNITARIOA (PEKZ)

△ LURRALDE EREMUA:

Iruñeko auzoak (Sanduzelai, Arrotxapea, Alde Zaharra, Txantrea, Etxabakoitz, Arrosadia eta Azpilagaña, Mendillorri eta Erripagaña, eta Buztintxuri).

△ NOIZ GARATU DEN:

1995etik gaur egun arte, garapen erritmo ezberdinekin, auzoaren arbera.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input checked="" type="checkbox"/> Mistoa: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Lehentasunezko helburua haurren eta nerabeen babes komunitarioa lortzea da, proiektu, sare eta jarduera komunitarioak sustatuz, honako esparru hauetako eragileekin elkarlanean: auzoa, gizarte ehuna, hezkuntza arloa, osasun arloa, bestelako zerbitzu publikoak eta, jakina, Gizarte Zerbitzuetako auzoko unitateak. Haurrak eta Nerabeak Babesteko Foru Sistemako udal zerbitzuak dira. Oinarrizko prebentzioko esku-hartzeak egiten dituzte, edo unibertsalak (koordinazioa eta jakinarazpena) beharrezko izanez gero, Oinarrizko Laguntzako Haur eta Familiako taldeekin, babesik ezeko egoerak antzemanaz gero; eta laguntza ematen dute, bigarren mailako prebentzio jardueren bitartez, Haurtzaroko eta Familiako Lantaldeek eta Haur eta Nerabeendako Arreta Lantaldeek bideratutako haurrak eta nerabeak barnean hartuta.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

1980ko hamarkada: Udalaren Gizarte Zerbitzuetako Haur eta Gazteen sektoreko astialdian prebentzio eta sustapen jardueretarako dirulaguntzen deialdiak boluntarioen esparruan ekimen komunitarioak finantzatzea ahalbidetu zuen.

1995etik aurrera: Elkarte komunitarioen lehen prebentzio proiektu komunitarioak: Sanduzelako Umetxea Sanduzelai elkarte (1995), Arrotxapeko Batean Federazioa (1997) eta Alde Zaharreko Aldezar elkarte (1997). 2003an: Txantreako SiñarZubi Federazioa; 2016an: Arrosadia/Azpilagaña eta Mendillorri/ Erripagaña, eta 2017an: Buztintxuri.

2004: Udalaren osoko bilkuraren erabakia, Udal Zerbitzu Publiko izaera aitortzen ziena.

2011: Iruñeko Udalaren Haurren eta Familiaren Arretarako Programaren barruan (HFAP) sartu ziren (Gizarte Zerbitzu orokorren Zorroko prestazio bermatua), eta prebentzioa haurren babesaren parte gisa aitortu zen lan komunitarioaren barruan, eta gizarte eta hezkuntzako metodologiarekin.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Lantalde tekniko profesionala, hezitzaile komunitarioen lantaldeak, parte hartzen duten haur eta nerabeak, eta auzoko sare komunitario eta komunitateartekoekin eraikitako proiektu komunitarioak.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuak (PEKZ) sartuta daude auzoetako sareetan, udal administrazioan eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Foru Sistematan.

PEKZko haur eta nerabeen parte-hartzeari dagokionez, auzoko eragile gisa jarduteko, adinaren eta jardueraren arabera taldetan antolatzen dira. Eta beste PEKZ batzuetako haur eta nerabeekin elkarlanean ere aritzen dira komunitateen arteko esparruetan. Proiektuen subjektu aktibo dira, nor bere adinaren eta gaitasunen arabera, eta auzoko zerbitzu eta bizitza komunitarioan parte hartzen dute.

△ WEB ERREFERENTZIA:

<https://www.pamplona.es/ayuntamiento/areas-municipales/servicios-sociales>



4.2. BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN ESPERIENTZIAK

OLIVER AUZOKO PROZESU KOMUNITARIOA (ZARAGOZA)

△ LURRALDE EREMUA:

Oliver auzoa, Zaragoza

△ NOIZ GARATU DEN:

2009tik gaur egun arte

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

2009tik 2016ra arte, Gabriela Mistral etxebizitza multzoan esku-hartze komunitario bat egin zen, bi proiektu hauen bidez: Rehabitat Proiektua (2009-2012), Zaragoza Etxebizitzak kudeatuta, eta ConVi-da Proiektua (2013-2016), zenbait erakunde sozialek kudeatuta.

Bizikidetzak hobetzen laguntzeko helburu orokorra hartuta, zenbait esku-hartze garatu ziren honako arlo hauei dagokienez: eremu komunak zaindu eta errespetatzea; komunitateetan antolaketa hobetzea eta gatazkak gutxitzea, eta auzokoei bizikidetzak, komunitate eta auzoari buruzko prestakuntza ematea.

2016an, proiektua amaitzea erabaki zuten. Besteak beste, parte hartzeko, metodologia bat, pedagogikoa eta, epe ertain-luzera begira, eraldatzailea erabiltzeak ez zielako erantzuten komunitatearen zati handi batek eskatzen zituen premiazko eta epe laburrera begirako zigor irtenbideei. Horrek, gainera, esku hartzeko lantaldearekiko konfiantza galera eragin zuen.

Auzoko bizikidetzak hobetzeko lanean jarraitu beharra zegoen, horregatik, Zaragozako Udalaren parte-hartzearekin eta aurreko proiektuetan oinarrituta, esku-hartzea, 2017an, “Cuéntame Oliver, Escuela de Ciudadanía Oliver” izeneko proiektura bideratu zen. Horren helburua: Oliver auzoko autoestimua kolektiboa indartzea, historian zehar izandako beharrei aurre egiteko baliatu dituen indarguneak berreskuratuz eta ikusaraziz.

2019tik aurrera, esku-hartzeari “Fortalece Oliver, Escuela de Ciudadanía Viva” izena eman zioten, eta haren helburua zen aurreko fasean antzemandako indarguneak auzoaren oraingo beharren zerbitzura jartzea 2018an sortutako indarguneen enbaxada sarearen bitartez.

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Oliverreko “Aragón” auzo elkarteak Gabriela Mistralen esku-hartze osoa egiteko egingandako eskaeran dago haren jatorria. Zaragoza Etxebizitza udal sozietateak esku hartzeko konpromisoa hartu eta Rehabitat proiektua diseinatu eta gauzatu zuen, Europar Batasunaren Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren finantzaketa ere izan zuena. Euro-

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input checked="" type="checkbox"/> Mistoa: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

pako proiektu horren ostean egindako proiektuak hiru gizarte erakundek kudeatu dituzte (elkarte profesional bat, auzo elkarte bat eta gizarte ekimeneko kooperatiba bat), baina lidergoa une bakoitzeko lantalde teknikoak, auzo erakundeak eta erakunde kudeatzaileak partekatu dute.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Oliver auzoko eragileen mahaia, hogeit hamar zentro eta proiektuz osatuta (sarean koordinatu eta lan egiteko talde finkoa; hilean behin biltzen da, eta auzoko proiektu, erakunde, talde... orok parte har dezake bertan). Parte hartzaileak: Auzo elkarteak, Gizarte Zerbitzuetako Udal Zentroa, osasun etxea, Cáritas, Oliver zentro komunitarioa, auzoko Haurren Proiektuen Koordinatzailea, Udaltzaingoa, Polizia Nazionala, Oliver Parkeko Elkarte Koordinatzailea, Ramiro Solans ikastetxea, Fernando el Católico ikastetxea, María Moliner BHI, Down Fundazioa, Zentro Soziolaborala, auzoko parrokiak, Adikzioen Prebentziorako Udal Zentroa. Eta beste eragile batzuk, mahaiko kideak izan ez arren, prozesuan inplikatuta direnak.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Prozesuaren faseetan antolaketa eta partaidetza egitura ezberdinak sortu dira:

- ▶ Eragileen mahaia
- ▶ Talde eragilea
- ▶ Lan batzordeak
- ▶ Auzo brigadak: historia, hirigintza, haurrak, erabilerak eta ohiturak.
- ▶ Jarraipen taldea: esku hartzeko lantaldeak, auzo erakundeak, erakunde kudeatzaileak eta administrazioak osatuta.
- ▶ Kontraste taldea: auzoa edo gaia ezagutzen duten baina esku-hartzean zuzenean inplikatuta gabeko pertsonen osatuta.
- ▶ Oliver auzoko indarguneen enbaxada sarea: hiri osoko 295 pertsona, banako gisa, eta auzoko 23 zentro edo proiektu.
- ▶ Esku hartzeko lantaldea

△ WEB ERREFERENTZIA:

<https://rehabitatzaragoza.wordpress.com/el-proyecto/>

<http://rehabitat-projet.org/index.php?id=28&L=1>

http://www.zaragozavivienda.es/M08_PROYECTOS-EUROPEOS/02%20FINALIZADOS/04%20REHABILITAT/INFORME%20TECNICO%20REHABILITAT.pdf

<https://proyectoconvida.wordpress.com/>

<https://labezindalla.es/category/cuentame-oliver/>

LA CALZADA AUZOKO PROZESU KOMUNITARIOA - MAR DE NIEBLA (GIJÓN)

△ LURRALDE EREMUA:

La Calzada auzoa (Gijón)

△ NOIZ GARATU DEN:

2012 eurotik aurrera

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Gogoetan aldi batez murgilduta egon ondoren, Mar de Niebla elkarteak (La Calzada auzoan gizarte eta hezkuntzako programak egiten zituen) komunitatea garatzeko plan bat abian jartzea erabaki zuen, gizarte eta hezkuntzako logika aldatzea eta eragina areagotzea helburu. Horrela bada, auzoan parte hartzeko prozesuak iruten hasi ziren, modu anitzetan eta hainbat adinetako pertsonekin. Behar anitz dituen auzoa da, eta erantzunetako ugari bertan daudela jabetzen hasi dira. Zeregin horretan lantalde profesionalekin eta boluntario ugariarekin batera aritu ziren. Zentro komunitarioak jarduerak eta loturak antolatzen lagundu zuen. Zentroak laguntza ematen die haur eta nerabeei, familiekin lan egiten du, eta kaleko heziketa zein gizarteratze eta laneratzea egiten du. Parte hartzeko, boluntarioen eta elkar laguntzeko sistema oso indartsua du.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoa: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input type="checkbox"/> Sare zabala <input checked="" type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

△ ORIGEN Y LIDERAZGO INICIATIVA:

Elkarte horrek ikuspegi komunitarioarekin lan egiten zuen jada, baina urrats bat gehiago egitea eta guztia programa komunitario baten alde paratzea erabaki zuen.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Hasieran uzkur agertu arren, Udalak onartu egin zuen; erakundeak du lidergoa, eta auzo osoak parte hartzen du.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Elkar laguntzea, biltzarrak, haurren parte-hartzea... Jarduera eta erabaki guztiak parte-hartze komunitarioko tekniken bidez bururatzen dira.

△ WEB ERREFERENTZIA:

<http://mardeniebla.es/>



PREBENTZIO KOMUNITARIOA - HONDARRIBIA (GIPIZKOA)

△ LURRALDE EREMUA:

Hondarribia (Gipuzkoa)

△ NOIZ GARATU DEN:

1998-2019

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Prebentzio komunitarioko udal zerbitzuak herritar guztiei ematen die arreta oro har, eta maila komunitarioan esku hartzen du osasuna kolektiboki sustatzeko planak lantzen diren neurrian, betiere eskura dauden baliabideak erabiliz (edo galdutako dinamika komunitarioak indartuz). Adin guztietako pertsoneri ematen diete arreta, ad hoc erantzunak diseinatuz, eta komunitatean finkatuta beti.

2012an fase bat akitu zen, ordutik jarduera batzuk galdu ziren eta zerbitzuak, desagertu ez arren, jarduera gutxitu zuen eta beste bide batzuk bilatu zituen.

Askotariko alderdiak lantzen dira: kaleko heziketa / Osasun programak ikasleekin / Gurasoen eskola / Zuzeneko arreta: aholkularitza, terapia, akonpainamendua / Gizarteratzeko programak / Gizarte laguntzako programa / Adikzioen arriskua murriztea...

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Maila politikoa <input type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoak: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input checked="" type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Borondate politikoaren ondorioz sortu zen; kaleko heziketa lantaldea eskatu zuten, eta diziplinarteko lantalde komunitario bihurtu zen berehala.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Udala / Gizarte Zerbitzuak, Gazteria, Kirolak, Udaltzaingoa, Osasun etxea, elkarte ehuna, kirol klubak...

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Batzordeak daude lurraldeko funtsezko eragileekin eta herritarrekin, osasuna sustatzeko estrategia zehazteko eta haren jarraipena egiteko.

△ WEB ERREFERENTZIA:

- ▶ <https://www.prebentzio.com/>
- ▶ <https://www.hzgune.org/>
- ▶ https://www.prebentzio.com/?page_id=21

KEK PROIEKTUAK: KULTURARTEKO ESKU HARTZE KOMUNITARIOA (ESPAINIA)

△ LURRALDE EREMUA:

Espainiako 39 lurralde (31 udalerrri)

△ NOIZ GARATU DEN:

Lehenengo proiektuak 2010ean abian paratu ziren 17 lurraldetan.

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Kulturarteko Esku Hartze Komunitarioko Proiektuak elkarreragina eta bizikidetzaren sustatzen ditu kultur aniztasun nabarmena duten eremuetan, gizarte kohesionatua sortzeko.

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Maila politikoa <input type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoak: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input checked="" type="checkbox"/> Osotasunari heldzea <input type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heldzea

Helburua gizartean esku hartzeko eredu bat sortzea da, eredu hori udalerrri guztietan aplikagarria izatea, eta herritarren kulturarteko bizikidetzaren laguntzeko balio izatea, biztanle guztien bizi baldintzak hobetzeko.

Hori lortzeko, gizarte arloan lan egiteko era berri bat bultzatzen dute, lurraldean dauden baliabideetatik abiatuta, eta komunitate osoa bere garapenaren protagonista bihurtuta:

- ▶ Hezkuntza eta osasun komunitarioaren esparrutik lan eginez.
- ▶ Tokiko garapena laguntzen duten eta herritar guztien bizi baldintzak hobetzen dituzten prozesuak bultzatuz.
- ▶ Gizarte osoa errealitate berriaren aukera, erronka eta arazoei aurre egiteko gaituz.
- ▶ Gizartearen gatazkakortasun egoerak prebenituz, eta egoera horiek herritarren kulturarteko bizikidetzaren aldeko bihurtuz.

Prozesuak aurrera egiten du lehen egunetik elkarlanean harremanak ezarriz baliabide tekniko-profesionalekin, herritarrekin eta administrazioen ordezkarekin, baita haien artean ere, ondoren harreman horiek finkatzeko, tokiko errealitateari buruzko ezagutza partekatua sortuz eta hiru protagonistek ekintzak elkarrekin garatuz. Era horretan, tokiko komunitatea antolatzeko modu berri bat eratzeko aukera ematen duten erlazio espazio berriak sortzen dira.

Parte hartzeko ikerketak eta diagnostiko komunitarioak egiten dira. Diagnostikotik abiatuta, ekintza planak diseinatzen dira, programazio komunitarioa deituta. Eta horri guztiari laguntzeko, informazio eta komunikaziorako ekintzak egiten dira eta topaketa komunitarioak antolatzen, protagonisten ekarpenak nabarmentzeko eta izandako aurreapenak ezagutarazteko.

Zentzu berean, interes orokorreko jarduerak ere sustatzen dira, hiru protagonisten arteko lankidetzaren kultura bat eraikitzen joateko, hala nola herritarren ekintza globalak, udako eskola irekiak zein ikaskuntza eta zerbitzuko jarduerak antolatu eta eginez, osasuna sus-

tatzen duten eragileen bitartez, merkataritza suspertzeko jardunaldiak antolatuz, elkarri-zketa publikoen bidez, sozialki arduratsuak diren lurraldeak osatuz...

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

La Caixa Gizarte Ekintzak bultzatu zuen, tokiko administrazioarekin elkarlanean, baita jardun beharreko lurraldeko gizarte erakunde erreferente batekin ere.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Tokiko eta estatuko administrazioarekin elkarlanean lan egiten da, eta lurraldeetako erakunde sozialekin, proiektua beste auzo eta udalerrri batzuetara eramateko moduko eredu bihurtu ahal izan dadin.

Erakunde sozialei lotutako diziplinarteko lantaldeen bitartez, prebentzio eta sustapeneko esku-hartze integratzaile bat garatzen da, egoerak egiaz aldatu nahian, eta eraldatzea xede, azken beltzean. Horrek guztiak darama herritarren eta erakundeen parte-hartzea bilatzen duten prozesuak bultzatzera.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Lurralde bakoitzeko lantalde komunitarioen bidez egiten da prozesuaren ikuspegi osoa, baita horren barruan garatzen diren ekimen eta ekintzen arteko antolaketa ere. Lantalde horiek hiru protagonistak eta dagozkien erlazio espazioak elkarri lotzen dizkiote: teknikarien harreman eremua, erakundeen harreman eremua, herritarren harreman eta parte hartzerako eremua.

△ WEB ERREFERENTZIA:

<https://obrasociallacaixa.org/es/pobreza-accion-social/interculturalidad-y-cohesion-social/proyecto-de-intervencion-comunitaria-intercultural/que-hacemos>



EL COLLETERO - NALDAKO PROZESU KOMUNITARIOA (ERRIOXA)

△ LURRALDE EREMUA:

Naldako udalerrria (Errioxa) eta inguruak

△ NOIZ GARATU DEN:

El Colletero elkarteak 2000. urtean sortu zen herrian PANAL elkartearen bitartez (ondarea kontserbatzea) bizitako prozesuaren eta esperientziaren ondorioz.

△ DESKRIBAPEN LABURRA:

Naldako herritarren nahia da landa ingurune horretako bizi kalitatea hobetu eta atxikitzea, zoriontsu izatea, egiten dutenaz gozatu eta hori partekatzea, eta horretarako, beren ingurunea eta bizitza babestu eta hobetzen duten programak eta jarduerak bultzatzen dituzte.

Arte eta ingurumen arloko ondarea zaindu, sustatu eta berreskuratzen dute, oroimen biokulturala oso gogoan edukita; landa jakintzak eta haiei lotutako kultura berreskuratzen dituzte; adineko pertsonen esku dauden kultura eta jakintzak, alegia.

Erresilientzia sortzen eta sustatzen dute, lurraldeari zein pertsoneri aplikatuta. Herria familia handi bat da, bere kontraesanak, desadostasunak eta emozio biziak –negatiboak zein positiboak– dituen; horregatik, zaintzea, ospatzea, zorientasuna, talde lana, akordioak, kide izateko sentimendua, begirunea... ezinbestekoak dira komunitatearen zein bizibidearen onerako.

El Colletero elkarteak garapen jasagarri eta zuzena lortu nahi dute Naldako herrian. Komunitatea zaintzailea izatea, non pertsonak elkar zaintzen duten, pertsonen pribatasuna errespetatuz eta biztanle berriak errespetuarekin hartuz. Pertsonen arteko harremanak hobetu nahi dituzte eta desberdinkeriak ezabatzen ahalegindu nahi dute, ideiak, proiektuak eta bizimoduak sortuz gizabanakoaren eta habitataren inguruan duten ikuspegi integratzailearekin bat.

Ingurumena ere zaintzen dute, bai mendietako lurrak, bai nekazaritzakoak, duten biodibertsitate guztia barne.

Gainera, arreta bereziarekin lantzen dituzte baratzea eta fruta-arbolak, eta Iregua haraneko paisaia berezi hori zaintzen dute. Honako proiektu hauek egiten dituzte:

- ▶ Mikorrizen ikerketa taldea
- ▶ Ireguako baratzeak
- ▶ Kontsumo kluba
- ▶ Ludotekak
- ▶ Veranearte

Esku-hartzearen tipologia honako irizpide hauei jarraikiz	
Jatorria	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Maila politikoa <input type="checkbox"/> Maila teknikoa
Lidergoa	<input checked="" type="checkbox"/> Elkarte edo auzo ehuna <input type="checkbox"/> Erakunde maila (politikariak eta teknikariak) <input type="checkbox"/> Mistoa: elkarteak eta erakundeak
Inplikazioa	<input checked="" type="checkbox"/> Sare zabala <input type="checkbox"/> Sare ez oso zabala
Irismena	<input checked="" type="checkbox"/> Osotasunari heltzea <input type="checkbox"/> Ardatz zehatz bati heltzea

- ▶ El Colletero saltokia
- ▶ Marmeladak
- ▶ Enplegu zentro berezia
- ▶ Lur konexioa

△ EKIMENAREN JATORRIA ETA LIDERGOA:

Jatorria eta lidergoa Naldako komunitatean dago; El Colletero 2000. urtean sortu zen elkarte da, PANAL elkartearen proposamenari erantzunez, eta urtebetez lagundu ondoren (Nalda eta inguruko ondarea leheneratu eta sustatzeko elkarte). Naldako herriaren garapen jasangarri eta bidezkoa lortzeko sortu zen, baita landa lurralde honetako pertsonen beharrei erantzuteko ere.

△ INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Sarean lan egiten dute toki, eskualde, estatu eta nazioarteko esparruan. Tokiko eragile hauek daude inplikaturik:

- ▶ Naldako gazteen kluba.
- ▶ Mar del Iregua etxeko laguntzako kooperatiba.
- ▶ Nalda Coop XXI (Haurren eta Gazteen Kooperatiba)
- ▶ PANAL (Arte eta ingurumen ondarea berreskuratzeko elkarte)
- ▶ Misioneras del Pilar Hirugarren Adineko egoitza (Nalda).
- ▶ Frutos del Campo Kooperatiba, Nalda.
- ▶ Naldako ikastetxe publikoa Moncalvillo LIP.
- ▶ Naldako Gurasoen Elkarte.
- ▶ Naldako Udala.

△ ANTOLAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK:

Proiektu eta programa guztiek parte hartzeko eskubidearen garapenarekin zerikusia dute, eta ikuspegia autogestionarioa, herritarrak beren bizitzaren eta inguruneko esku-hartzearen protagonista izan daitezten. Hortik, abian diren jarduerak programatzeko eta birprogramatzeko bilera bat egiten dute astean behin, baita hurrengo asteko zereginak banatzeko ere.

Colleterotik bi elkarlaneko kooperatiba sortu dira: hurrei zuzendutako bat, NALDA COP XXI, eta etxeko laguntzari buruzko beste bat, MAR DEL IREGUA. Naldako nekazaritza kooperatiban ere parte hartzen dute.

△ WEB ERREFERENTZIA:

<http://www.elcolletero.org/index.html>

5 BIBLIOGRAFÍA

1. Osasun Komunitarioaren Aliantza [Internet]. Hemen eskuragarri: <http://www.alianzasaludcomunitaria.org/>
2. CASSETTI V, LÓPEZ-RUIZ V, PAREDES-CARBONELL JJ (Adapta GPS proiektuko lantaldea): Participación comunitaria: mejorando la salud y el bienestar y reduciendo las desigualdades en salud, Osasun Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa - Osasun Zientzien Aragoiko Institutua, Zaragoza, 2018.
3. CASTELLÓN BENAVIDEZ, E.: Organización Comunitaria. 1 zk.dun liburuxka, "Organización", Estelí, Instituto de Formación Permanente (INSFOP), Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea (FAO), Nikaragua, 2008.
4. KOMUNITATEAREN OSASUN ETA GARAPENERAKO ZENTROA: 3. kapitulu. 2. sekzioa, Entender y describir La comunidad, Lawrence, KS: Kansasko Unibertsitatea, 2014. 2019ko uztailaren 16an eskuratuta, Baliabide Komunitarioen Kutxatik:<https://ctb.ku.edu/es/tabla-de-contenidos/valoracion/valorar-las-necesidades-y-recursos-comunitarios/descripcion-comunitaria/principal>
5. DE ROBERTIS, C. eta PASCAL. H.: La intervención colectiva en trabajo social. La acción con grupos y comunidades, El Ateneo, Buenos Aires, 1994.
6. DEL FRESNO GARCÍA, M. ETA SEGADO SÁNCHEZ-CABEZUDO, S.: "Estado del Bienestar y trabajo social comunitario: repensando la comunidad, globalización y neoliberalismo", in DEL FRESNO GARCÍA, M., SEGADO SÁNCHEZ-CABEZUDO, S. ETA LÓPEZ PELÁEZ A. (ed.): Trabajo Social con comunidades en el siglo XXI. 49-74. or., Universitas, Madril, 2012.
7. ANDECHA LANTALDEA - Parte hartze eta Lan Komunitarioa: "Curso de capacitación al voluntariado Aplicación del enfoque de la Participación Social en la Intervención Comunitaria", EAPN España, Madril, 2016.
8. GOMÁ, R.: "La acción comunitaria: transformación social y construcción de ciudadanía", in RES: Revista de Educación Social, 7 (2018), ISSN-e 1698-9007.
9. HARNECKER, M. ETA BARTOLOMÉ, J.: Planificando desde abajo. Una propuesta de planificación participativa descentralizada, El viejo topo, Espainia, 2015.
10. MAYA JARIEGO, I., HOLGADO D., RAMOS I. ETA SANTOLAYA F.J.: (2013). "Dinámicas que permiten el tránsito entre distintas formas de relación: participación, sentido de pertenencia e identidad compartida", in Buades J., Giménez C.: Hagamos de nues-

tro barrio un lugar habitable. Manual de intervención comunitaria en barrios, Generalitat Valenciana: CeiMigra, 3. kapitulua, (2013) 74 – 101. or.

11. MARCHIONI, M.: La acción social en y con la comunidad. Zaragoza, Libros Certeza, ISBN 84-96219-26-7, 2004.
12. MARCHIONI, M., MORIN L.M., ÁLAMO J.: “Metodología de la intervención comunitaria. Los procesos comunitarios”, in Buades J., Giménez C.: Hagamos de nuestro barrio un lugar habitable. Manual de intervención comunitaria en barrios, Generalitat Valenciana: CeiMigra, 2. kapitulua, (2013) 58 – 72 or.
13. MARTÍ, J.: Diagnósticos Comunitarios y participación local: El diagnóstico comunitario de la Zona Ponent de Tarragona, CIMAS Herritarren eta Ingurumen Jasangarriaren Nazioarteko Behatokia (CIMAS), Espainia, 16. or.
14. MORALES MORALES, E. eta REBOLLO IZQUIERDO, O: “Potencialidades y límites de la acción comunitaria como estrategia empoderadora en el contexto actual de crisis”, in Revista de Treball Social, Col·legi Oficial de Treball Social de Catalunya, 203 (2014), 9-22 ISSN 0212-7210.
15. LAN KOLEKTIBOA CreativeCommons: Metodologías Participativas Manual, CIMAS Herritarren eta Ingurumen Jasangarriaren Nazioarteko Behatokia, Madril, 2009.
16. PASTOR SELLER, E.: Trabajo Social con comunidades, Editorial Universitas SA, ISBN: 978-84-7991-451-6, Madril, 2015.
17. REBOLLO O., MORALES E., GONZÁLEZ S.: Guía operativa de evaluación de la acción comunitaria, IGOP-Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, 2016.
18. ÚCAR, X., HERAS, P. eta SOLER, P.: “La evaluación participativa. De acciones comunitarias como metodología de aprendizaje para el empoderamiento personal y comunitario: estudio de casos y procesos de empoderamiento”, in Pedagogía Social, revista Interuniversitaria, 24 (2014), 21-47.
19. VILLASANTE, T. R.: Cuatro redes para mejor vivir, I. eta II., Lumen, Buenos Aires, 1998.

Toki-erakunderen batek kanpoko laguntzaile teknikoak kontratatzeko asmoa badu eta horri buruzko aholkua behar badu, gurekin harremanetan jar daiteke, hemen:

Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua | Nafarroako Gobernua

Helbidea: Amaia kalea 2A, 2.a | 31002 Iruña

Tel.: 848 426 006 | 848 427 038

Helbide elektronikoa: participacionciudadana@navarra.es

